

Eibarko aditza



Aditz
Batzordia

Aditz-Batzordia

Eibarko aditza

Eibarko Udala / Euskara Batzordea
1998

Izenburua
Eibar ko aditza

Egillia
Eibar ko Aditz-Batzordia

Argitaratzaillia
Eibar ko Udala - Euskara Batzordea

Diseiñua eta Maketaziñua
Ama Aizpurua - Maki Oruezabal

Inprimategi xa
Gertu kooperatiba

I.S.B.N.
89696-03-9

Lege Gordaillua
SS-3/98

1998ko Otsaila



Esku artian dakazun liburua, irakurle, urtietako jua-
etorriaren eta hainbat lagunen borondatezko biharraren
frutua dozu. Batzuk buru-belarri eta beste
batzuk lantzian behiñ edo zeregiñ zehatzetan
jardunez.

Hasiera batian Euskara Batzordiak egindako
deixari bete-beteko erantzuna emonez, Jon
Etxabek ekin zetsan oiñarrizko materixaletako
aditz-formak jasotziari eta gusto haundiz
kuadrotxoetan sartzeari; Jasone Bilbaoren
laguntziagaz. Horretarako Toribio Etxebarriaren
“*Flexiones verbales y lexicón del euskara
dialectal de Eibar*”, Beatriz Aizpирiren “*Eibar
ko hitanoa*”, Juan San Martinen “*Aditz
laguntzaillien paradigma*” eta “*Bergarako
euskarara*” liburuko aditz taulak erabili
zittuezen erreferentzia nagusi moduan. Baita
zenbaiten aporfaiziñuak be. Besteak beste
Estebean Gallastegi, Roberto Larreategi eta
Kontxa Laspiurrenak.

Oiñarrizko materixal hori talde-lanian,
baktotxak bere esperientzia eta jakiturixia
ekariz, erabillera sinkronikuaren formekin
kontrastatu zan eta galbahian pasau Jose
Etxeberria, “*Jose Querido*”, eibarreraren
testigu jator moduan, Roberto Larreategi,
Jon Etxabe, Begoña Azpiri, Juan Andres
Argoitia, Jesus Mari Gisasola “*Trunboi*”
eta Fernando Muniozguereni esker. Hor
nahiko ixkura oneko aditz-
taulak osatu ziran, baiña zalantza asko
eta hizkuntzaren ikuspegi diakronikua
gehitu barik. Eta, horretan, bai zalantzak
argitzen, lana era sistematuazuan tajutzen
zein diakroniaren aporfaiziñuaz osatzen,
Serafin Basauriren lana eta dedikaziñua
azpimarkau bihar da, berak zuzendu dau
eta, urtebete pasa, astero alkatuz, Jose
Etxeberria, “*Jose Querido*”k, Roberto
Larreategi, Pedro Lakak, Jesus Mari
Gisasola “*Trunboi*”k, Nerea Aretak eta
Fernando Muniozguerenek osatutako lan-
taldia.

Euskara Batzordiarene zeregiña, batez be,
gai dan jentia batu, egittekuaren nundik-
norakuak eta zergaitiak azaldu, medixuak
jarti eta koordinatzia izan da. Motibaiziño

artuan ez da egon ahalegindu biharrik, jardundako guztiak dira-eta euskaltzaliak.

Baiña lan-taldekik aparte izan dira beste lagun aitu bi, Miren Azkarate bergarra eta Juan San Martin, bixak euskaltzainak, Aditz Batzordiak egin daben hau lanau jorratu eta gero baloraziño oso ona egin dabenak, bai lanaren gainian bai erabillitako metodologiaz, ohar batzuk eta zuzenketatxo batzuk proposau arren.

Danori ba, eskerrik asko eta txaluak bete dozuen borondatezko lan garrantzitsua ez dalako lehelena eta, espero deigun, azkena be ez izatia.

Bide batez esan biharra dago Eibarke euskeriaren, eibarreraren, errekuperaziño edo berreskuratze ahalegiñian kokatu bihar dala Aditzaren hau liburua eta, baita be, oiñ dala pare bat urte argitaratutako “*Eibarke euskeraren esaerak eta bestelako berezitasun batzuk*”.

Baiña, zorionez, lan honetan parte hartutakuen eta beste lagun batzuen ahalegiñari esker, bai deklinabidiaren liburua eta baita beste batzuk be etorriko dira.

Hörren lan guztien helburu nagusiñak dira, eibarreraren berreskuratziakin batera, eibartarron jardun linguistikua jatortzia, eguneroko bizimodurako egokittuz eta belaunaldi gaztiendako eta eibarrera ikasi edo sakondu gura nahi dabenedako erreferentzia izango dan corpus-a osatu eta eskintzia.

Gure ustian, euskara batuak 30 urteko bidia egiñ eta gero, ez dago inñungo arriskurik euskara estandartrak atzera egitteko. Ostera, lekuan-lekuko euskerak presentzia urritzen, mugatzen eta jatortasuna galtzen doiaz. Horregaitik, berandutu baino lehen, daukagun une historikua aprobetxau biharra dago eta ahalegiña egiñ, lekuan-lekuko euskerak indartu eta bizibarriztu, batuaren osagari eta aberasgari egitteko. Argi laga gura dogu osagari eta aberasgari diñogula. Horrek esan gura dau batuaren zeregiña herri guztietako euskaldunek alkar aitzeko tresna izatia dala eta eibarrerarena, ostera, herri maillakua.

Amaittu baiño lehen, derrigorrezkua da esatia holako lan batian bete-betian asma-tzia ez dala samurra, bestiak beste, erizixak be bakoixak beriak ditualako, erreferentzietan be dispersiñua dagolako eta erabagixak hartziak berakin dakarrelako hankia sartzeko arriskua. Halanda be, hor dago eibarrerak biharrezkua daben bai oraingo eta bai geroko lan sendua eta, inñungo duda barik, gaur gaurkoz, bidia egingo daben erreferentzia nagusixa. Zorionak eta milla esker danori.

Jabier Zorrakin (Udal Euskara Batzordiarene izenian)

1.	SARRERIA	17
1.1.	EIBARKO EUSKERIAREN BEREZITTASUNAK MORFOLOGIAREN ALDETIK	18
1.1.1.	“H” ezaugarritzat dauken bigarren pertsonako adizkixetan, sexu-markia	18
1.1.2.	Ahalezko Orainaren ordeZ Hipotetikua	19
1.1.3.	Subjuntiboko orainaldixan “hirugarren pertsonia+denboria”ren ezaugarria	19
1.1.4.	“Z” pluralgillaren eta “N” lehenaldiko eta subjuntiboko markia-aren arteko loturia	19
1.1.5.	Aditz laguntzailetan NORI 3. pertsona pluralaren ezaugarria	19
1.1.6.	NOR aditz-jokoko Ahalezkuan <i>-te-</i> elementu bako aditz-formak	19
1.1.7.	Laguntzailliaren “NOR-NORI”ko Baldintza-Ondorixuan darabiguzen bi ereduez	20
1.1.8.	Baldintzan, Ondorixuarena dan “ <i>ke</i> ” markia erabiltzeko joeriaz	20
1.1.9.	“NOR-NORI”ko Ahalezkuan, <i>-te-</i> edo <i>-ki-</i> elementu bako aditz-formak	20
1.1.10.	Lehenaldixan, 3. pertsoniaren ezaugarriak daukagun bittasunaz	21
1.1.11.	Laguntzailliaren NOR-NORK aditz-jokuan, Ondorixuan, NOR pluralari dagokioxozen aditz-formetan dogun bittasunaz	21
1.1.12.	“EGIN” laguntzailliaren Subjuntibuan, emakumiari dagokixon aditz-formia eratzeko darabigun modu berezixa	21
1.1.13.	“EGIN” laguntzailliaren Subjuntibuan, NOR-NORK aditz-jokuan, “ <i>a</i> ” loturazkuakin darabigun joko berezixa	22
1.1.14.	“*EDUN/EUTSI” NOR-NORI-NORK aditz-jokorako laguntzailliaren adizkixetan “U” sustraixaren presentziaZ	22
1.1.15.	NORK-dun aditz-jokuetan GUK, ZUK eta ZUEK-en “NORK” lehenaldiko ezaugarriak	23
1.1.16.	Laguntzailliaren Ondorixuan, NOR-NORI-NORK aditz-jokuan darabiguzen bi ereduez	23
1.1.17.	EGON eta JAKIN aditzetako lehenaldixan “A” eta “E” loturazkuak	23
1.1.18.	IBILLI eta ERABILLIren aditz-formetan “T”aren presentziaZ	24
1.1.19.	Aditz trinkuetarako NORI ezaugarriak	25
1.1.20.	EUKI aditzian dogun bittasuna, aditz-formak “U” sustraidunak eta sustraibakuak bixak darabiguneZ	25
1.1.21.	“j” alokutibuaren markia hittanuan	26
1.1.22.	Hittanuen adizkixetan NOR/ZER pluralen amaierak	27
1.1.23.	Baldintzan hitanua erabiltziaren gainian	27
1.1.24.	Aditz trinkuen NOR-NORI-NORK jokabidian, adizki alokutiborik paradigmetan ez jartziaz	27
1.1.25.	Jokaera komposatuko aditz nagusixa edo adierazlia	27

1.2.	ADITZ-ORTOGRAFIXIA	28
1.2.1.	Batuaren erregelak eta aditz-ortografixara ekarri ditugun zenbaitt bustidura eta hiatuetako aldaketak	28
1.2.2.	Aditz-ortografixara ekarri ez ditugunak	31
1.3.	ADITZ-PARADIGMAK AURKEZTEKO MODUAREN ZENBAITT AZALPEN	33
2.	ADITZ LAGUNTZAILLIA	35
<hr/>		
2.1.	IZAN/*EDIÑ NOR	35
	Taula analitikuak	36
	Paradigmak	40
2.2.	IZAN/*EDIÑ NOR-NORI	41
2.2.1.	Indikatibua, Oraina	42
2.2.2.	Indikatibua, Lehena	44
2.2.3.	Baldintza	46
2.2.4.	Ondorixua - “a” ereduak	48
	“b” ereduak	50
2.2.5.	Ahalezkua, Oraina-Hipotetikua	52
2.2.6.	Ahalezkua, Lehena	54
2.2.7.	Subjuntibua, Oraina	56
2.2.8.	Subjuntibua, Lehena	58
2.2.9.	Agintera	60
2.3.	*EDUN/EGIN, NOR-NORK	63
2.3.1.	Indikatibua, Oraina	64
2.3.2.	Indikatibua, Lehena	66
2.3.3.	Baldintza	68
2.3.4.	Ondorixua	70
2.3.5.	Ahalezkua, Oraina-Hipotetikua	72
2.3.6.	Ahalezkua, Lehena	74
2.3.7.	Subjuntibua, Oraina	76
2.3.8.	Subjuntibua, Lehena	78
2.3.9.	Agintera	80
2.4.	EUTS/EGIN, NOR-NORI-NORK	83
2.4.1.	Indikatibua, Oraina - Taula analitikuak	84
	2.4.1.1. Paradigmia - NOR/ZER = ha	85
	2.4.1.2. Paradigmia - NOR/ZER = harek	86

2.4.2.	Indikatibua, Lehenen - Taula analitikua	87
2.4.2.1.	Paradigmia - NOR/ZER = ha	88
2.4.2.2.	Paradigmia - NOR/ZER = hárek	89
2.4.3.	Baldinza - Taula analitikua	90
2.4.3.1.	Paradigmia - NOR/ZER = ha	91
2.4.3.2.	Paradigmia - NOR/ZER = hárek	92
2.4.4.	Ondorixua	93
2.4.4.1.	Ondorixua, “a” ereduaren - Taula analitikua	94
2.4.4.1.1.	“a” ereduaren paradigmia - NOR/ZER = ha	95
2.4.4.1.2.	“a” ereduaren paradigmia - NOR/ZER = hárek	96
2.4.4.2.	Ondorixua, “b” ereduaren - Taula analitikua	97
2.4.4.2.1.	“b” ereduaren paradigmia - NOR/ZER = ha	98
2.4.4.2.2.	“b” ereduaren paradigmia - NOR/ZER = hárek	99
2.4.5.	Ahalezkua, Orainaren - Hipotesia - Taula analitikua	100
2.4.5.1.	Paradigmia - NOR/ZER = ha	101
2.4.5.2.	Paradigmia - NOR/ZER = hárek	102
2.4.6.	Ahalezkua, Lehenen - Taula analitikua	103
2.4.6.1.	Paradigmia - NOR/ZER = ha	104
2.4.6.2.	Paradigmia - NOR/ZER = hárek	105
2.4.7.	Subjuntibua, Orainaren - Taula analitikua	106
2.4.7.1.	Paradigmia - NOR/ZER = ha	107
2.4.7.2.	Paradigmia - NOR/ZER = hárek	108
2.4.8.	Subjuntibua, Lehenen - Taula analitikua	109
2.4.8.1.	Paradigmia - NOR/ZER = ha	110
2.4.8.2.	Paradigmia - NOR/ZER = hárek	111
2.4.9.	Agintea - Taula analitikua	112
2.4.9.1.	Paradigmia - NOR/ZER = ha	113
2.4.9.2.	Paradigmia - NOR/ZER = hárek	114
3.	ADITZ TRINKUA	115
3.1.	NOR	115
3.1.1.	EGON - Taula analitikoak	116
	Paradigmia	119
3.1.2.	ETORRI - Taula analitikoak	120
	Paradigmia	123
3.1.3.	IBILLI - Taula analitikoak	124
	Paradigmia	127
3.1.4.	JUAN - Taula analitikoak	128
	Paradigmia	131

3.2. NOR-NORI	133
3.2.X. EGON, ETORRI, IBILLI - Taula analitikuak	134
3.2.1. EGON Paradigmak	137
3.2.1.1. Indikatibua, Oraña	137
3.2.1.2. Indikatibua, Lehená	138
3.2.1.3. Baldintza	139
3.2.1.4. Ondorixua	140
3.2.1.5. Agintera	141
3.2.2. ETORRI Paradigmak	142
3.2.2.1. Indikatibua, Oraña	142
3.2.2.2. Indikatibua, Lehená	143
3.2.2.3. Baldintza	144
3.2.2.4. Ondorixua	145
3.2.2.5. Agintera	146
3.2.3. IBILLI Paradigmak	147
3.2.3.1. Indikatibua, Oraña	147
3.2.3.2. Indikatibua, Lehená	148
3.2.3.3. Baldintza	149
3.2.3.4. Ondorixua	150
3.2.3.5. Agintera	151
3.2.4. JUAN - Taula analitikuak	152
3.2.4. JUAN - Paradigmak	155
3.2.4.1. Indikatibua, Oraña	155
3.2.4.2. Indikatibua, Lehená	156
3.2.4.3. Baldintza	157
3.2.4.4. Ondorixua	158
3.2.4.5. Agintera	159
3.3. NOR-NORK	161
3.3.X. EKARRI, ERABILLI, ERUAN, EUKI - Taula analitikuak	162
3.3.1. EKARRI - Paradigmak	167
3.3.1.1. Indikatibua, Oraña	167
3.3.1.2. Indikatibua, Lehená	168
3.3.1.3. Baldintza	169
3.3.1.4. Ondorixua	170
3.3.1.5. Agintera	171
3.3.2. ERABILLI - Paradigmak	172
3.3.2.1. Indikatibua, Oraña	172
3.3.2.2. Indikatibua, Lehená	173
3.3.2.3. Baldintza	174
3.3.2.4. Ondorixua	175

3.3.3.	ERUAN - Paradigmak	176
3.3.3.1.	Indikatibua, Oraña	176
3.3.3.2.	Indikatibua, Lehena	177
3.3.3.3.	Baldintza	178
3.3.3.4.	Ondorixua	179
3.3.4.	EUKI - Paradigmak	180
3.3.4.1.	Indikatibua, Oraña	180
3.3.4.2.	Indikatibua, Lehena	181
3.3.4.3.	Baldintza	182
3.3.4.4.	Ondorixua	183
3.3.Y.	*IÑO (ESAN), JAKIÑ - Taula analitikuak	184
3.3.5.	*IÑO (ESAN) - Paradigmak	187
3.3.5.1.	Indikatibua, Oraña	187
3.3.5.2.	Indikatibua, Lehena	188
3.3.6.	JAKIÑ - Paradigmak	189
3.3.6.1.	Indikatibua, Oraña	189
3.3.6.2.	Indikatibua, Lehena	190
3.3.6.3.	Baldintza	191
3.3.6.4.	Ondorixua	192
3.3.Z.	IRUDI, JARDUN - Taula analitikuak	193
3.3.7.	IRUDI - Paradigmak	195
3.3.7.1.	Indikatibua, Oraña	195
3.3.7.2.	Indikatibua, Lehena	195
3.3.7.3.	Baldintza	196
3.3.7.4.	Ondorixua	196
3.3.8.	JARDUN - Paradigmak	197
3.3.8.1.	Indikatibua, Oraña	197
3.3.8.2.	Indikatibua, Lehena	197
3.3.8.3.	Baldintza	198
3.3.8.4.	Ondorixua	198
3.4.	NOR-NORI-NORK	199
3.4.X.	EKARRI, ERABILLI, ERUAN - Taula analitikuak	200
3.4.1.	EKARRI - Paradigmak	202
3.4.1.1.	Indikatibua, Oraña	202
3.4.1.1.1.	NOR/ZER = ha	202
3.4.1.1.2.	NOR/ZER = hárek	203
3.4.1.2.	Indikatibua, Lehena	204
3.4.1.2.1.	NOR/ZER = ha	204
3.4.1.2.2.	NOR/ZER = hárek	205

3.4.1.3.	Baldintza	
3.4.1.3.1.	NOR/ZER = ha	206
3.4.1.3.2.	NOR/ZER = hárek	207
3.4.2.	ERABILLI - Paradigmak	208
3.4.2.1.	Indikatibua, Oraña	
3.4.2.1.1.	NOR/ZER = ha	208
3.4.2.1.2.	NOR/ZER = hárek	209
3.4.2.2.	Indikatibua, Lehena	
3.4.2.2.1.	NOR/ZER = ha	210
3.4.2.2.2.	NOR/ZER = hárek	211
3.4.2.3.	Baldintza	
3.4.2.3.1.	NOR/ZER = ha	212
3.4.2.3.2.	NOR/ZER = hárek	213
3.4.3.	ERUAN - Paradigmak	214
3.4.3.1.	Indikatibua, Oraña	
3.4.3.1.1.	NOR/ZER = ha	214
3.4.3.1.2.	NOR/ZER = hárek	215
3.4.3.2.	Indikatibua, Lehena	
3.4.3.2.1.	NOR/ZER = ha	216
3.4.3.2.2.	NOR/ZER = hárek	217
3.4.3.3.	Baldintza	
3.4.3.3.1.	NOR/ZER = ha	218
3.4.3.3.2.	NOR/ZER = hárek	219
3.4.4.	ERITXI	220
3.4.4.1.	Indikatibua, Oraña	220
3.4.4.2.	Indikatibua, Lehena	222
3.4.4.3.	Baldintza	224
3.4.5.	*IÑO (ESAN)	226
3.4.5.1.	Indikatibua, Oraña	226
3.4.5.2.	Indikatibua, Lehena	228
BIBLIOGRAFIXIA		231

ADITZ TRINKUEN AURKIBIDE-TAULA

NORK-BAKUAK		NOR	NOR-NORI
EGON	T. analitikuak Paradigmak	116-118 119	134-136 137-141
ETORRI	T. analitikuak Paradigmak	120-122 123	134-136 142-146
IBILLI	T. analitikuak Paradigmak	124-126 127	134-136 147-151
JUAN	T. analitikuak Paradigmak	128-130 131	152-154 155-159
NORK-DUNAK		NOR-NORK	NOR-NORI-NORK
EKARRI	T. analitikuak Paradigmak	162-166 167-171	200-201 202-207
ERABILLI	T. analitikuak Paradigmak	162-166 172-175	200-201 208-213
ERITXI	T. analitikuak Paradigmak		220, 222, 224 221, 223, 225
ERUAN	T. analitikuak Paradigmak	162-166 176-179	200-201 214-219
EUKI	T. analitikuak Paradigmak	162-166 180-183	
*IÑO (ESAN)	T. analitikuak Paradigmak	184-185 187-188	226, 228 227, 229
IRUDI	T. analitikuak Paradigmak	193-194 195-196	
JAKIÑ	T. analitikuak Paradigmak	184-186 189-192	
JARDUN	T. analitikuak Paradigmak	193-194 197-198	



ibarko euskieran darabiguzen aditz formak batzia eta tauletan jartzia izan zan hasiera batuan “*Aditz-batzordia*”n egitekua. Lan benetan nekeza eta oztopo-tsua. Toribio Etxebarriaren “*Flexiones verbales...*” eta Juan San Martiñen “*Aditz laguntzaillaren paradigmak*” erreferentzia derriortzezkuak izango dira batzordiarentzat; eta partaide bakotxak berak darabixazen aditz formekin eta batari eta bestari jasotako herriko berbetatik jasotakuekin juango gara paradigmak osatzen.

Lehenengo pausu honen ondorixua: Alde batek, aditz modu batzuek osatu barik geratzen jakuzen, galduz doiazelako edo herri-berbetan gitxi erabiltzen diralako; eta bestetik, sekulako bariante pillua batzen jakun aditz-forma bakotxarentzat. Bariantion artian, danetik: jatorrizko forma zuzenak batzuek eta herrixak analogixaz-edo sortu dituan beste asko, gramatika normatibuaren aldetik zuzenak ez diranak logikaren bat gorde arren; ezin ba danak ontzat emon egundoko nahastia sortuko genduke eta.

Horren aurrian ba eta gauzak argittuz juateko, azterketa lanari ekin gentsan. Bizkaierara edo Mendebaldeko euskalkira jo genduan argittasun billa, Eibarko euskera, jakinekua danez, euskalki horretxen barruan dago, eta hortxe billau bihar genduan geure zalantzendako argittasuna. Lana ondo egin nahixak bultzau ginduzen gonbaraziñuak egittera, inguruko azpi-euskalkixen aditzakin, bizkaiera literari-xuanakin eta euskera batuanakin be bai. Bizkaierako aditzaren gainian hainbat liburu aztertu bihar izan dogu, ez hórrek liburuotako aditz-formok beste barik geureganatzeko, baiña bai jatorrizko formia aurkitu eta bihar izan ezkeru Eibarko euskerara egokitzeko, asko ala gitxi darabigun begiratu barik. Esan biharrekua da, gramatika liburuetara bakarrik ez dogula jo, Eibarko euskeran idatzitako idazlanetara be jo izan dogula: Torbio Etxebarrian “*Ibilarixanak*”, Juan San Martiñen “*Zirikadak*” eta beste zenbait lani, Pedro Zelaiaren “*Umore giruan*” idazlaneri, eta Antonio Iturriotzen zenbait artikuluri jorratu edarra emon detsegu.

Ixa konturatu barik, geure lanak berak eruan gaittu helburuak markatzeru: alde batek, bizirik daren aditz-formak jaso eta gordetzia; eta bestetik, erdi galduta edo galdutzat emonda daukaguzenak errekuperatzia. Adizkixak, euren jatorrizko formia

desitxuratu barik baiña aho-hizkeratik ahal danik eta hurren nahiko genduker; gure helburu honen ardatza, Eibarco euskera idatzirako (mintzaturako be bai, jakina) egokitutako aditz-sistema finkatzea izango da, herrixak darabixana baiño jasugua izango dana eta geure berezittasunak, zein fonetiko zein morfologikuek (zuzenak badira) gordeko ditutana. Aditz Batzordiarene aporetaziño hau Eibarco euskeriaren “corpus”a osatzeko lagungarri izan deñ nahiko litzake. Edozein modutan, aditz-sistemiaren finkatze lan hau proposamena baiño ez da eta zuzendu bharreko gauza bat baiño gehixago egongo da seguru.

Guazene oiñ azaltzera, paradigmok osatzeruzkuan morfologixian aldeetik aurkittu izan ditugun Eibarco euskeriaren berezittasunak, ortografixiaren gainian Batzordiarene egokixenak irudittu jakozene irizpidiak, eta aditz paradigmak aurkezteko modua.

1.1. EIBARKO EUSKERIAREN BEREZITTASUNAK MORFOLOGIXIAREN ALDETIK

Eibarco euskertia bizkaiera edo mendebaldeko euskalkixiaren barruan daguan ezkerre, aditz paradigmak egiteruzkuan topau ditugun berezittasunak eta diferentziak bizkaiera literarixuakin ditugunak izango dira naturala dan moduan. Diferentziok, dana dala, ez dira Eibarco euskieran bakarrik agertzen, inguruetako azpiuskalkixietan be aurkittu leikez eta.

1.1.1. “H” ezaugarritzat dauken bigarren pertsonako adizkixietan, sexu-markia.

Nahiko zabalduta dagan joeria da hau izan, emakumiari dagokixon aditz-formia eratzeruzkuan: *haut-haunat, hintzan-hintzanan, heban-hebanan...* adizki normalari emakumiaren *-na*-sexu-markia gehitzia. Azkueren “*Morfologia*”tik (725.orr.) hartu dogu hau: “*En Eibar se oye la flexion ik Pratska, ikusi BAEBANAN, feminizaciön forzada de ikusi BAEU, que generalisimamente y con toda propiedad ain dice el pueblo refuriendose a agentes femeninos*”. Baiña ez da Eibarco euskieran bakarrik gertatzen. Lizardik be badarbil: *...nai aumat ere noranaikoa*. Hórrek adizkixok ez dira gramatika normalibuaren aldeetik zuzenak, ez euskera batuan ez bizkaieran; baiña asko darabiguzene ezkerre jarri egingo ditugu paradigmetan (*) batez markauta, forma zuzenakin batera.

Gizonezkuari dagokixozene adizki batzuetan be, sexu-markia premiña barik jartzeko joeria dogu, “hitasuna” indartu nahixan-edo. Esate baterako: *heskixok**, *heskixug**... Hónek be markauta jarriko ditugu.

1.1.2. Ahalezko Orañaren ordez Hipotetikua.

Ahalezkuan, jatorrizko Orañaldixari (*naieke... daiteke...*) Hipotetikuak (*nei(n)ke... leike...*) lekua kendu detsa, danerako darabigularik: bai Oraña agertzeko (ahal da, seguru), bai Hipotesia (ahal izango da, bilar bada..); NOR-NORK jokabidian bardiñ: (*daiket... daike...*)ri (*neike... leike...*)k kendu detsa lekua. Funtziño bixetarako darabigunez **Oraña-Hipotetikua** deitu detsagu. Hau ez da Eibarko euskeran bakarrik gertatzen, bizkaiera barruan nahiko zabaldua dagan ordezkatzia da eta.

1.1.3. Subjuntiboko orañaldixan “hirugarren pertsonia+denboria”ren ezaugarria.

De- darabigu, bizkaierako eta euskera batuko *da-*ren ordez. *Deiñ, dexan...* Toribio Eixebarriak, lehenengo pertsonan be *ne-* darabil: *neiñ*. Iruditu jaku, bai batuko bai bizkaierako *na-* erabiltzia egokixagua dala (*nañ*) lehenaldiko aditz-formatik (*neiñ*) bereizteko be.

1.1.4. “Z” pluralgillaren eta “N” Lehenaldiko eta Subjuntiboko markiarene arteko loturia.

Hau loturiau egitteko “E” darabigu (*ZEN*) Eibarren gehixenok, eguzkibegiko basarrixetan bizkaierian “A” (*ZAN*) be entzuten dan arren.

1.1.5. Aditz laguntzailietan NORI 3. pertsona pluralaren ezaugarria.

NORI 3. pertsona pluralaren ezaugarria, singulararrenari “e” gehituz eratzen dogu. Orduan: *o/ko + e = oe/koe > ue/kue* alde batetik eta,

t/a + e = t/a/e > t/e bestetik.

Esate baterako: *leikixue* eta ez *leiki (x)e, jakue* eta ez *jake, detsae* eta ez *deutsoe*.

1.1.6. NOR aditz-jokoko Ahalezkuan -te- elementurik bako aditz-formak.

NOR eta NOR-NORI aditzetako laguntzailia **EDIN* da eta honen sustraixa *di*. Jatorrizko aditz-formak aldatuz jua dira: *lediteke > leiteke > (eta guk) leike* (Ikus: P. Pujana, *Euskal Aditza Bizkaieraz* 49. orrialdia). Galdu egin jaku *-te-* elementu hori. Halanda be, Toribio Eixebarriak *baleiteke* darabil *izan leikiala* esateko; baiña halaxe, lokuziño solte erara bakarrik; bestela *juan leike, etorri leike...* erabiliko dau.

NORK-dun aditzetako laguntzailia *EGIN* da eta honen sustraixa *-gi-*. Jatorrizko aditzkixak aldatuz jua dira hemen be: *legike > leike*.

Hor ba, zelan itxura bardiña dauken adizkixak jatorri eta esan nahi desbardiña dauken: *leike* (**edin*) eta *leike* (*egin*). Bizkaiera literariuak gordezen daben *-te*- hori galtziakin, adizki bardiña erabiltzen dogu, NORR-dun perpausetan *leike*, eta NORR-bakuetan be *leike* (*leitekere*n orde*z*).

1.1.7. Laguntzailharen “NOR-NORI”ko Baldintza-Ondorixuan darabiguzen bi ereduez.

Eredu bi darabiguz, bakotxa bere eremuan:

a) bata, kalian baiño gehixago basarrixetan erabillixagua, gure erixiz. Hirugarren pertsonako adizkixaren “*lita-*” osagaixa daukana eta Ondorixuaren “*ke* > *ki*” ondorixo-markia daroiana (*KE* ondorixo markia gaur egunian *KI* bihurtu dana NORI ezaugarriaren aurrian doianian). Esate baterako: *Pixar hori jausiko balixako, apurru egingo litxakixo*.

b) bestia kaletarragua, “*leja-*” osagaidun adizkixak darabixana, eta Ondorixua zuzena izateko euki bihar leukian “*ke*” marka bakua. Eredu honetan Baldintza eta Ondorixuaren arteko desbardintasun bakarra, Baldintzak daroian “*ba-*” bere markia da. Adibide bera erabilliz: *Pixar hori jausiko balejako, apurru egingo lejako*.

Antzerako bitasuna agertzen dau A. Errastik bere “*Iurreta elizateko euskara eta toponimia - Aditza*” 93. orrialdian.

Eredu bixak dira erabilgarririk, baiña lehenenguari gramatika aldetik zuzenagua dala deixogu. Dana dala, Baldintzan erabiltzen dan eredu bera erabilli biharko litzake Ondorixuan be.

1.1.8. Baldintzan, Ondorixuarena dan “ke” markia erabiltzeko joeria.

Oso zabaldua dago joera hori, bai bizkaieran baita gipuzkeran be; eta Eibarko euskeran be bai: *etorriko balitzake...*; *pixarra jausiko balitxakxo...* Hau joerian aditz-joko guztietan daukagu: bai NOR, NOR-NORI, NOR-NORK, eta NOR-NORI-NORK en be bai. Ez deitxogu gramatika aldetik zuzena danik, eta ez dogu aukera hori jarri paradigmatan.

1.1.9. “NOR-NORI”ko Ahalezkuan, *-te*- edo *-ki*-elementu bako aditz-formak.

Bai Añibarro, bai Kampion, bai A. Irigoienen arabera, *neintekio*, *leitiki*, *leitikio* eta holakuak (Bizkaierazko tauletan agertzen direnak), Bizkaiko euskeraz *nenkitio*, *lekiket* edo *lekkit*, *lekkeo* edo *lekkitio* dira. Ikus: EUSKERA XXVIII (1982) 100. orrialdia, Euskaltzaindixaren agirixetan A. Irigoienen oharrak.

Eibarke euskeran, ez dogu *-te*- elementua erabiltzen, ezta Ahalezko markiarenean aurreko *-ki-* elementua be. Begitnantzen jaku Euskaltzaindixak gomendatutako ereduak hurrago daguala guria eta baleittekiala honen antzerako eraldaketaren bat gertatzia: *neunkio* > *neinkio* > *neinkio* edo *lekikeo* > *leikeo* > *leikio*.

Hemen be, NOR eta NOR-NORK aditz-jokuen artian gertatzen jakun moduan, Ahalezko NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK jokabidien artian be, zenbait adizki bardiñak bihurtu jakuz forma aldetik: *lekikeo* > *leikio* eta *legikeo* > *leikio*. HA HARI *juan leikixo* eta HARÉK HARI HA *emon leikixo*.

1.1.10. Lehenaldixan, 3. pertsonian ezaugarrixakin daukagun bittasuna.

Euskera batuan (*Z-*) edo bizkaierian *markarik ezaren ezaugarria* (\emptyset), bixak darabiguz eta ez dogu bixetako bat bazartzeko arrazoirik ikusten. (*Z*)*eban*, (*z*)*exian*, (*z*)*etsan*, (*z*)*exion*, (*z*)*eguan*, (*z*)*etorren*, (*z*)*ebillen*, (*z*)*ekarren*, (*z*)*erabixan*, (*z*)*erorian*, (*z*)*eukan*, (*z*)*ekixan*, *Z*-kin zein *Z-* barik bixetara darabiguz. Baiña badira aditz-forma batzuk, beti *Z*-kin darabiguzenak be: *zeikian*, *zeiñ*, *zekixon*, *ziharduan*...

1.1.11. Laguntzailharen NOR-NORK aditz-jokuan, Ondorixuan, NOR pluralari dagokixozen aditz-formetan dogun bittasuna.

NOR plurala danian eta NORK = *nik*, *hik*, *harek*, eta *hárek* danian, adizki modu bi darabiguz: bata, “*z*” pluralgillia atzian daroiana eta erregularragua dana (*neukez*); eta bestia, “*t*” pluralgilliaekin eratzen dana (*nitukez*) eta (*nitinke*).

1.1.12. “EGIN” laguntzailharen Subjuntibuan, emakumiari dagokixon aditz-formia eratzeko darabigun modu berezixa.

Emakumiari dagokixon adizkixa, gizonetzkuarena eratzen dan modu berian eratu biharko genduke, eta ez, egiten dogun moduan, gizonetko-markiarenean segidan emakumiarena ezartiz, hau da: *a* + *na* = *ana* egiñez. Halan ba, *-ana*- darabigu NORK markatzat NOR-NORK aditz-jokuan eta NORI markatzat NOR-NORI-NORK aditz-jokuan, *-na*- erabilli bihartian. Darabiguzen aditz-formak “*?*”aren ezkerrian jarritakuak dira eta aditz-forma zuzenak eskuman jarritakuak:

	<u>NORK</u>	<u>NOR</u>	
<i>Oraíña</i>	Hik	ni	naixanan/naiñan
		ha	deixanan/deiñan
		gu	gaixanazen/gaiñazen
		hárek	deixanazen/deixazen
<i>Lehena</i>	Hik	ni	neixanan/neiñan
		gu	geixanazen/geiñazen

	NORI	NORK	ha	hárek
Oraiña	hiri	nik	deixanaran/deiñaran	deixanarazen/deiñarazen
		harek	deixanan/deiñan	deixanazen/deiñazen
		guk	deixanagun/deiñagun	deixanaguzen/deiñaguzen
		hárek	deixanen/deiñen	deixanazen/deiñazen
Lehena	hiri	nik	neixanan/neiñan	neixanazen/neiñazen
		harek	(z)eixanan/(z)eiñan	(z)eixanazen/(z)eiñazen
		guk	geixanan/geiñan	geixanazen/geiñazen
		hárek	(z)eixanen/(z)eiñen	(z)eixanezen/(z)eiñezen

1.1.13. “EGIN” laguntzailharen Subjuntibuan, NOR-NORK aditz-jokuan, “a” loturazkuakin darabigun joko berezixa.

Oraiñaldixan, NORK = harek eta NOR singularra danian “a” loturazkua darabigu, sustraixa “n” subjuntibo-markiakkin lotzeko, bizkaiera literarixuan egitten dan moduan. Baiña guk, bizkaiera literarixuan egitten ez dana, analogixaz-edo NOR pluraletan be sartu egitten dogu “a” hori, “z” pluralgillaren aurrian.

Lehenaldixan be, antzera jokatzan dogu, NOR = *hárek* danian, loturazko “a” hori sartuz “z” pluralgillaren aurrian.

Hemen, guk darabiguzen aditz-formak “r”aren ezkerrian jarritakuak dira, eta bizkaiera literarixuaren jokabidia erabiliz izango lirakenak eskuman jarritakuak:

	NORK	NOR		
Oraiña	harek	gu	gaixazen/gaizen	
		zu	zaxazen/zaizen	
		hárek	deixazen/deizen	
Lehena	nik	hárek	neixazen/neizen	
	hik	hárek	heixazen/heizen	
	harek	gu	geixazen/ge(ng)izen	
		zu	zeixazen/ze(ng)izen	
		hárek	(z)eixazen/(z)eiizen	

1.1.14. “*EDUN/EUTSI” NOR-NORI-NORK aditz-jokorako laguntzailharen adizkixetan “U” sustraixaren presentziaz.

Eibarko kaletarren euskeran behintzat, bai Oraiñaldiko bai Lehenaldiko adizki guztietan galduta dogu “U” sustraixa, HIRI adizkixetan izan ezik. Erabiltzen dogun moduan idatziko dogu: nik hari *deisat* eta ez *deutsat*; baiña nik hiri *duat*. Halanda be,

bada Markiña aldeko eragiña nabarmenagua dabean zenbait basarri inguru, “U” sustraixorri ondo eusten detsana.

1.1.15. NORR-dun aditz-jokuetan GUK, ZUK eta ZUEK-en “NORR” lehenaldiko ezaugarriak

Laguntzaillaren lehenaldixan, NORR ezaugarria adizkixaren hasieran doa eta gramatika aldetik zuzen eraturako aditz-formak *ge(u)n-*, *ze(u)n-* eukiko dabe hasieran *EDUNen edo *gei-*, *zei-*, EGINen. Baiña, Orañaldixan darabiguzen *-gu-*, *-zu-*, *-zue-* “NORR” ezaugarriak adizkixaren azkenian erabiltzeko joera haundixa dago, eta honek joerionek bidia emon detse, **aditz-forma zuzenez aparte**, bi eratako aditz-formeri:

1 - adizki zuzenari, erredundantzia egiñaz NORR ezaugarria atzian be ezartzen jakona, esan-nahixa argitzeko-edo; esate baterako: guk hari *gentsan* > *gentsagun*, zuk hari *zentsan* > *zentsazun* > *zetsazun* eta zuek hari *zents(a)en* > *zen-tsazuen* > *zetsazueni*; edo baita Subjuntibuan zuk ha *zeizun* be.

2 - hirugarren pertsoniaren aditz-formiari, hōnek NORR ezaugarriok ezarritz eraturakua; esate baterako: guk hari *(z)etsagun**, zuk hari *(z)etsazun** eta zuek hari *(z)etsazuen**. Asko erabiltzen dira modu honetan eraturako adizkixak, baiña hau onartu ezkeru, aditz sistemian aldrebeskerixaz lortintzeko atia zabalik lagatzen da; halatxe sortu jaku *leiker**, *leikezu**, *leikegu**... adizki sailia. Era honetako adizkixak guztiz baztergarriak iruditzen jakuz.

Aditz trinkuetan be arazo bera daukaguz, bardintsu jokatuko dogu: esate baterako, EUKI aditzian *geunkan/geunkagun*, *zeunkan/zeunkazun* onartzen dira, baiña ez ostera, *(z)eukagun**, *(z)eukazun**; edo JAKIÑ aditzian, *genkixan/genkigun*, *zenkixan/ze(n)kizun* onartzen dira baiña ez *zekigun**.

1.1.16. Laguntzaillaren Ondorixuan, NOR-NORI-NORR aditz-jokuan darabiguzen bi ereduaz.

Bitasuna dogu hemen be. *KE* ondorixuaren markia, *NORI* ezaugarriaren aurrian ala atzian jartziak adizki sail bi emoten ditu: *neskixo/netsake*. Eredu bixak darabiguzenez eta aukerarik egitteko arrazoirik ikusten ez doguzenez, bixak onartuko ditugu. *Neskixo* sailaren kasuan, esan behar da *KE* ondorixo markia gaur egunian *KI* bihurtu dala *NORI* ezaugarriaren aurrian doianian.

1.1.17. EGON, JAKIÑ eta ERABILLI aditzetako lehenaldixan “A” eta “E” loturazkuak

Komenigarria ikusten dogu loturazko hōnek hizki bixok nun jartzen ditugun aztertzia, *NOR/ZER* bakarreko adizkixetan zuzen jartzen ditugun loturok, analogixaz- edo *NOR/ZER* pluraleko adizkixetan be sartzeko joeria daukagu-eta premiña barik.

NOR/ZER bakarra darian, sustraixaren (*GO/KI/RABI*) eta lehenaldixaren markia dan “N”an artian “A” loturazkua jartzen da: *-GO-A-N, -KI-A-N, -RABI-A-N*. Halaxe darabiguz, zuzen: *nenguan, henguan, zeguan* ; *nekixan, hekixan, zekixan, genkixan, zenkixan; nerabixan, herabixan, (z)erabixan, gerabixan...*

NOR/ZER plurala darian, sustraixaren (*GO/KI/RABI*) eta “N” lehenaldiko ezaugarriaren artian, “Z” pluralgillia erabiltzen da eta ez “O”k ez “T”k bihar dabe beste bokalik “Z”kin lotzeko. Aurterago esan dogun moduan (1.1.4), “Z” eta “N” lotzeko “E” darabigu (bizkaieraz “A” darabixena): *-GO-Z-E-N, -KI-Z-E-N*, edo *-RABI-Z-EN*. Eta halan eratzen dira, zuzen: *gengozen, zengozen, zengozeen > zengozien, zegozen; nekizen, hekizen, zekizen, genkizen, zenkizen, zenkizezen, zekizezen; nerabizen, herabizen, (z)erabizen, gerabizen...*

Baiña Eibarren, NOR/ZER bakarrekuetan darabigun “A” loturazkua, analogixaz-edo NOR/ZER pluralako adizkixetan be, sustraixaren eta “Z”aren artian sartzeko joeria daukagu, horren preniñarik egon ez arren. Halan darabiguz: *gengoazen > geuazen, zengozazen > zeuazen, zengozezen > zeuzien; nekixazzen, hekixazzen, zekixazzen, genkixazzen, zenkixazzen; nerabixazzen, herabixazzen...*

Torbio Eixebarriak EGON aditzian, *gengozen, zengozen* jarriko dau; baiña JAKIÑen eta ERABILLI n ostera *nekixazzen, hekixazzen, ekixazzen*; eta *nerabixazzen, herabixazzen, (z)erabixazzen...* (sustraixan *-rabi-* darabil, guk egokixagua iruditu jakun *-rabi-*ra aldatu doguna).

EGON aditzian eredu bixak darabiguz, eta orduan, bixak onartu dittugu. JAKIÑ eta ERABILLI aditzetan ostera, Eibarren darabiguna bakarrik jarri dogu paradigmetan: *nekixazzen, hekixazzen...*; *nerabixazzen, herabixazzen...*

1.1.18. IBILLIren eta ERABILLIren aditz-formetan “L”aren presentziaz

Hónen hitu erregelon arabera jokutzen dogu:

- 1 - Kontsonante baten aurrian eta hitanuan beti galtzen dogu. IBILLI aditzian : *gabiz, zabiz, ... ,nabik, gabixaz...*. ERABILLI aditzian: *darrabitt, darrabiziu..., jarabixat, darabiñ...*
- 2 - Azkena bada, ez dogu galtzen: *nabill, dabill; narabill, darabill.*
- 3 - Bokal baten aurrian, IBILLI aditzian mantendu egitten dogu: *nenbillen, (z)ebillen*. ERABILLI aditzian, ostera: *narabixe, darabixe, zerabixen...* “L”a galdu egitten da eta “X” loturazkua sartzen dogu haren ordiaz, sustraixaren “-i” eta ondorengo bokala lotzeko.

1.1.19. Aditz trinkuetarako NORI ezaugarriak

NOR-NORI aditz-jokuan, daukagun erabilpen urrixan bada be, datibo-aurreko “*KI*”-dun NORI pertsona ezaugarri honexek darabiguz:

<i>-kit,</i>	<i>-kik/-kiñ,</i>	<i>-kixo,</i>	<i>-kigu,</i>	<i>-kizu,</i>	<i>-kizue,</i>	<i>-kixue</i>
<i>-kiraz,</i>	<i>-kiraz/-kiñaz,</i>	<i>-kixoz,</i>	<i>-kiguz,</i>	<i>-kizuz,</i>	<i>-kizuez,</i>	<i>-kixuez</i>

Bizkaieraz ostera, ahozko erabilleran, IZAN aditz laguntzaillian darabiguzenak erabiltzen dira aditz trinkuetan be.

NOR-NORI-NORK aditz-jokuan, *IÑO (ESAN) aditzaren kasuan garbi dago NORI ezaugarriak EUTSI aditzarenak dirala. EKARRI, ERABILLI eta ERUAN aditzen jokorako ostera, geure zalantzak ditugu, Eibarko euskera-idatzixan erreferentzia garbirik be ez dogun ezker. Hain gitxi darabigu aditz-jokuan eze, Eibarko euskeran idatzi-ttako Toribio Etxebarria, Juan San Martin, Antonio Iurriotz eta Pedro Zelaiaren liburuetan, 400 orritan jokabide honetako adizki bat bakarrik aurkitu izan dogun: Pedro Zelaiaren “Umore giruan”-en 102. orrixan, *dakartzudaz*. Erreferentzia idatzirik daukagunik ezingo dogu ba esan. Berbetan, idatziz baiño gehixago erabilliko dira hónék aditz-formok, baiña ondorixuak etaratzeko lañ erreferentziarik ez daukagu, ZURI eta ZUERI kasuetan darabiguzen “*KI*” bakuak (*dakartzit, dakartzuet...*) izan ezik. Aditz-joko honetan be, badiruri NORI ezaugarriak NOR-NORIkurenak izan biharko leukiela, baiña HARI eta HÁRERI kasuetan egokixa dirurixan arren, lehen eta bigarren pertsoneri dagokixozen adizkixetan artifizial kutsua ikusten dogu eta batua eta bizkaieraren arteko hibrido faltsu samarrak sortzen dirala. Euskaltzaindixaren 1982ko “*Bizkaiko Aditzaren Erabilleraz Oharrak*” agirixa kontuan izan dogunez (Ikus: *Euskera 28zb 1983-1 98,99 eta 100. orrialdiak*), NORI ezaugarriaren sistema klasikuaren bidetik jo dogu eta oiñ artekuak guztiak kontuan eukitta, hauxe da aukeratu doguna:

EKARRI, ERABILLI eta ERUAN aditz-jokuetan, NORI ezaugarri klasikuak erabiltzia. NERI, HIRI, GURI, ZURI eta ZUERI-ren kasuan NORI-aurreko “*KI*”-bako adizkixak jartzia; HARI eta HÁRERI-ren kasuan ostera, nahiz eta “*KI*”-dunak egokixaguak begittantzen jakuzen, “*KI*”-bakuak be jartzia, bataren ala bestiaeren alde egitteko erreferentziarik ez dogunez. Hemen segidan NOR-NORI-NORK aditz-jokorako aukeratu ditugun NORI ezaugarriak:

-t, -a/na, -kixo/ko, -ku, -tzu, -tzue, -kixue/-kue

ERTXI aditzian, *HARI = o* eta *HÁRERI = oe* bakarrik darabiguz.

1.1.20. EUKI aditzian dogun bittasuna, aditz-formak *U* sustraidunak eta sustrai bakuak bixak darabigunez.

Bixetara erabiltzen dogu: *daukat/dakat*. Toribio Etxebarriak “*U*” sustraidunak darabiz eta guk, idazteko behintzat, hónetxeri emon detsagu lehentasuna eta halatxe jarri ditugu paradigmatan. Baiña “*U*” barik erabiltzia be aukeran da, jakíña.

1.1.21. “J” alokutibuaren markia hittanuan

Bizkaierako hittanuan, ez beti baiña bai askotan, adizki alokutibuak [j] erdi-bokala (guretzat kontsonantia, j gutural Azkuek diñuan legez) daroia pertsona ezaugarriaren ondoren, gixxi gora behera eskema honetan agertzen dan lekuan:

NOR/NORK			
pertsona			
<u>ezaugarriak</u>			
N	-	-	-
-L	-(a) - J -	e/ind	- sustraixa...
G		itt	
-L			

Kanpionek “*Gramática de los cuatro dialectos...*” en sistematikoki ezartzen dau ixa aditz-forma alokutibo guztietan. Umandik be, bere “*Formas verbales vizcainas*” en hittanuren adizki guztietan sartzen dau, honek “J”-ren lekuan “J” ipintzen dabelarik. Azkuek, bere “*Morfología...*”n, berak hain gorroto eban hittanuz diharduala, 588. orrialdian “*Conjugación familiar*” artikuluan aittatzen dau adizki alokutibuen elementu hau; “*la I familiar*” deitzen detsa eta bigarren pertsonako “*HI*”izenordia bera dala diño (*h* bakua jakina). Altubek bere “*Observaciones...*” en 156. orrialdixan eta hurrenguetan kritikatzan ditu puntu honen gainiango Azkuen teorixak eta beste ohar askoren artian diño: horrek ezaugarriak “*HI*” izenordiak ez daukala zerikusirik eta adizki alokutibuetan “*J*” hori sartzia ez dala inündik be *beti* gertatzen.

Zalantza barik esan geinke bizkaieran, hittanorako adizki alokutibuen elementuetako bat dala “*J*” hau. Azpi-euskalki batzuetan loturazko “*a*” barik sartzen da: *ñok* (n > ñ bihurtuz) eta *lleukek* (l > ll bihurtuz). Gurian, loturazko “*a*” kin batera: *najok* eta *la(j)eukek*.

Eibarko euskeran: singularreko pertsonetan, lehenenguan zein hirugarrenian bixetan darabigu; pluraleko pertsonetan ostera, hirugarrenian bakarrik darabigu eta lehenenguan guztiz galduta daukagu. Dana dala, ezin geinke “*j*” dalako hori sartzia erregela bete biharrekotzat hartu, batez be salbuespenak be asko darrelako egon.

Edozein modutan, Eibarko hittanuan kendu ezin leikian elementua dogu. Ez dogu eibartar guztiok ahoskatzen bokal biren artian daguanian: *lajjeikek* > *laeikek* ahoskatuko dogu, *lajeukek* > *laenkek*, *najitian* > *na-ittuan* (diptongaziño barik); “*j*”-a jausi egitten jaku ba bokal artian askori. Hori dala eta, hittanuan, “*j*” honek galduz juateko joeria dauka, eta alokutibuak sexu markiak bakarrak bereizteko joeria

indartzen. Paradigma bakotxian jarriko dogu erabiltzen dan ala ez, eta erabiltzen baldin bada ahoskatzen dogun ala ez: *ikus! najuan-i* ez jako *j-rik* jausiko, baiña *egingo naenkek-i* jausi egin jako.

1.1.22. Hittanuen adizkixetan NOR/ZER pluralen amaierak

Bizkaieraz, jeneralian, “Z” pluralgillia sexu-markiaren aurretik doa: *-z + ak/am; datozak/datozan*; baiña Eibarko euskeran, gehixenetan, beste era honetan jokatzen dogu: *-a/-na + z; datuaz/datonaz*. Eibarkeriaren berezitasun bat danez (eta inguruarena be bai, biharbada), geure erregela hauxe hartuko dogu eredutzat. Dana dala, anbiguotasuna gertau leikian guztian, bizkaierian erregela erabilliko dogu, ze komeni jakunian badarabigulako. Esate baterako: gu *goiazak* da darabiguna, *goiaaz > goiaz* erabilli ezkeru ez dakigulako zuka ala hittanuan dihardugun.

1.1.23. Baldintzan hittanua erabiltziaren gainian

Euskera batuan, meppeko esaldixetan, ez dago gramatika normatibuan aldetik ikusitta alokutibuak erabiltzerik, nahiz eta hittanuan jardun. Halaxe da Bizkaieraz eta Eibarko euskeran be, baiña Baldintzan ostera askok darabiguz, eta orduan adizki alokutibuok jarri egingo ditugu Baldintza paradigmatan. *Balitzok, balizon..* eta halakuak ondo sustraituta dare eta euskera batuakin daukagun diferentzia hau gordetzia merezi dabelakuan gare. Dana dala, esandakua ezin geinke Eibarko euskeriaren erregela bete biharrekotzat hartu, ze badira hiztunak hittanuan jardun arren Baldintzan adizki alokutiborik ez darabixenak.

1.1.24. Aditz trinkuen NOR-NORI-NORK jokabidian, ez dogu adizki alokutiborik jarri paradigmatan

Aditz trinkuen jokabide honetan, ez dogu aditz-forma alokutiborik jarri paradigmatan, taula analitikuak ahalbideratzen badabe be. Aditz-joko hau, hain da gitxi erabillixa eze, aditz-forma normal batzuk be nahiko arraro egitten jakuzen; eta zer esanik be ez hittanuenak. Inoiz erabilli izan diranik be, nork jakiñ? Horretxegaitik ez ditugu jarri.

1.1.25. Jokaera komposatuko aditz nagusixa edo aditz-adierazlia

Aditz perifrastikuetako lehenengo zatixari aditz nagusixa (edo Mitxelenak ziñuan moduan “izenkia”) deitzen jako, eta hauxe zatixau da esanahixa daukana; bigarren zatixa laguntzaillia deitzen detsaguna da. Hiru ohar honetaz:

1 - Aditza laguntzailiak in jokatzen dogunian, Ahalezkuan, Subjuntibua eta Aginteran, aditz nagusixa euskera batuan aditzoñ hutsa bada be (-i edo -tu aspektu marka barik: *ikus, sar...*), guk aspektu burutua darabigu : *ikusi, sarti...*

2 - Aspektu burutuan, -(T)U markiarene hiru bariante darabigu:

- AU: *amatau, asman, billau, estimau, ezkatau, kontau, pensau...*

- TU: *agertu, aittatu, hartu, berotu, bildurru, eskatu, garbittu...*

- DU: -TU aspektu markia biharrezkua izan eta aditzoña “n” edo “r”z amaitzen danian: *afaldu, aldendu, ezkondu, konpondu, epeldu...* euskera batuan moduan; baiña baita aditz maillegatu batzuekin be: *arrebidu, kabidu, prijidu, segidu, zerbidu, sufridu.*

Erregela fijosik ez daukagunez, aditz nagusixak ze forma daukan jakitzeko, onenonena Torbio Etxebarriaren “*Flexiones Verbales y Lexicón del Euskera Dialectal de Eibar*”era jotia da.

3 - Aspektu burutubakua -TZEN/-TEN eta etorkizunekua -KO/-GO ezartzeko euskera batuaren erara jokatzen dogu jeneralian. Aspektu burutubakuz, esate baterako, euskera batuaren moduan: *ibilizen eta ez ibilen**, *etortzen eta ez etortzen**, *hiltzen eta ez hiltzen**; baiña euskera batutik desbardin ostera: *joten** eta ez *jotzen*, *wrtetzen** eta ez *wrteten*, *jarautzen** eta ez *jarauten*.

1.2. ADITZ-ORTOGRAFIXIA

1.2.1. Batuaren erregelak, aditz-ortografixara ekarri ditudun zenbait bustidura eta hiatuetak aldaketak.

Aditzaren ortografixia finkatzeruzkuan be, euskera batua izango dogu erreferentzia nagusixa. Baiña herri mallako euskeriarentzat aho-bizkeratik ahal danik eta hurren egongo litzakiana erabili bihar gendukiala uste dogu, eta irizpide honen arabera jokatu izan dogu Eibarko euskeriaren aditz-ortografixako erregelak jartzetarakuan, gitxi gora behera Torbio Etxebarriak juten daben bide beretik.

Halan ba, zenbait bustidura eta hiatuetan egitten ditudun aldaketak be, aditz idatzira ekarri ditudun, euskera batua idatz-arauetatik neurrien batian aldentzen gaituen arren.

Honetxez dira, aditz ortografixarako punturik nausixenak:

h : Bigarren pertsoniaren markia “r” da, eta halatxe idatziko ditudun bigarren pertsoniari dagokixozen adizki guztiak: haiz, hintzan, ...hakit, haut...

Bokal artian be, bihar danian jari egingo dogu: *bahau, bahindu, ...dihardu.*

s/z: Bereizten ez ditugun arren (danerako /S/ darabigu eta), batuan legez jokatuko da, adizkixa berez bihar leukian moduan idatziz. Orduan: *destazu...*

ts/tz: Bereizketa hau be ez dogu egitten; /TZ/ da bakarrik ahoskatzen doguna. Halanda be, batuan moduan jokatuko da: *jatzu* baiña *deisut, deisagu...* idatziko dogu.

ez + adizkixa: Honetan be, Euskaltzaindixaren idatz-arauen arabera jokatuko dogu. Hau da, lotu barik idaztia. Arau honek daukan alderdi txarra da, letra idatzixak daukan indarragaitik, ahoskera oker bati bidia emoten jakola, “ez” eta “aditza” lotu barik ebagitziari. Adibidez, geruago eta gehixago esaten dira ahoz honen tankerak: *ez jako* (gaizki), *etxako* (zuzen) esan biharran. Aldaketa fonetikuak ez ditugu ba idazterakuan ezarriko, baiña ganoraz ahoskatzeko nahi-ta-nahiez gorde biharrekuak dira. Berba egitterakuan, “**ez**” **adizari lotzia derriorrezkua da jator ahoskatzeko**. Hórrrek loturok egitteko erregelek jarriko ditugu jarraixan:

	Idazteko bakarrik	Berbetan eta irakortzerakuan ahoskatzeko
ez + b- = ezb-	ez baletor	ezpaletor
ez + d- = ezd-	ez dator	eztator
ez + g- = ez g-/(ezk-) ¹	ez goiaz	ez goiaz
ez + j- = etx-	ez juat	etxuat
ez + l- = el-	ez leuke	eleuke
ez + n- = en-	ez noia	enoia
ez + z- = ez-/(etz-) ²	ez zan	ezan

(1) *kasu honetan ez dogu Eibarren ezer aldatzen, leku askotan g > k egiten daben arren.*

(2) *ez dago kasu honetan erregeela esturik emoterik baiña, batzuek “etz” egiten badabe be, gehixenok Eibarren “ez-”.*

Idatzi, aparte idatziko da ba; baiña berbetan eta irakortzian zuzen ahoskatzeko, eskumako zutabiari jarraitu bihar jako.

Hots bustixak:

i + l: Hau gertatzen danian “*ill*” idatziko dogu, ondorengua kontsonantia ez bada: *dabillenan, zebillen...*, baiña *zebillixon*. Adizki akaberan be bai, baiña ez beti: hurrengo berbia kontsonantez hasten danian “*l*” idatziko dogu eta bokalez edo “*h*” z hasten bada “*ill*”: *ondo dabill oiñ, badabill hori, badabil barriro be*.

i + n: Busti egingo dogu guztietan “*ñ*” idatziz: *giñan, deiñ, dabiñaz...* Baiña bada salbuespen bat: Ondorengo berbia kontsonantez hasten bada, adizki akaberan “*n*” idatziko dogu: *ez dein galdu*, baiña *gertau deiñ egunian*.

i + t: Hau gertatzen danian, “*it*” idatziko dogu, nahiz eta aho-hizkeran “*ix*” edo antzerakua entzun: *dittugu, jittun, hakit...*

il/in + d: Bustidura barik.

d (bokal artekua) = **r** idatziko dogu: Begitantzen jaku Eibarko euskeriaren ezaugarriretako bat dala eta merezi dabela aditz-idatzira eruata.

Miren Azkaratek jarrirako erreparuen eta emon deskuzen argibidien arabera, esan biharra dago: **d** hori, aditzian, 1. pertsonaren ezaugarrixa be badala. Kasu honetan **d** ez da berba bateko kontsonante hutsa, *morfema* bat da, aditz laguntzailian 1. pertsona adierazten dabena. Horrenbestez, batuko paradigmetan **d** (*nik* edo *niri*-ren ezaugarrixa), hemengo paradigmetan **r** agertuko da, Toribio Etxebarriak idazten zeban moduan eta Eibarko berbetan ahoskatzen dogun moduan: *hinduran, deivan, deuaraz, detsaraz, deixaran, eirak...*

Bestelako kasuetan be, **r** idatziko dogu: *gare, zare, dare...etorri hari...*

Hiatuak: Hiatuetan berbetan egiten ditugun aldaketak be, aditz idatzira eruan ditugu:

ea = ia	Litzakeaz > litzakiaz
ee = ie	zaree > zarie
eo = ixo	neikeo > neikio > neikixo
oa = ua	nintzoan > nintzu <u>an</u>
oe = ue	jakoe > jak <u>ue</u>
i + a = ixa	naixan, deixan
i + e = ixu	zaixerazen, naixen, deixen
i + o = ixo	litzakixo, leikixo
i + oa = ixua	litzakix <u>u</u> az, leikix <u>u</u> az
i + oe = ixue	litzakix <u>u</u> ek, leikix <u>u</u> ek

1.2.2. Aditz-ortografikara ekarri ez ditugunak

Aditz idatzira eruan ez ditugun zenbait aldaketa, laburketa eta fonema-jate laburbiltzia komenigarria iruditu jaku; ahoskatze zuzen baterako danak nahi-ta-nahiezeko arauak ez badira be, berbetan sari-sari darabiguzen ezkerro, testu idatzizian eta aho-hizkerian arteko loturia argitzeko balioko dabelakuan.

Zenbaitt aldaketa eta fonema-jate:

ez + b- = ezp-	ez baletor > ezpaletor
ez + d- = ezl-	ez dator > ezator
ez + g- = ez g-	ez goiaz (kasu honetan ez dogu g > k egiten)
ez + j- = etx-	ez juat > etxuut
ez + l- = el-	ez leuke > eleuke
ez + n- = en-	ez noia > enoia
ez + z- = ez-	ez zan > ezan
ez + ... aldaketok egitia derriorrezkua da ahoskatze zuzen baterako	
-t + b- = -p-	ez dakit ba > ezta k ipa
-k + b- = -p-	etorri dok ba > etorri o pa
-n + z- = -z-	ikusten zan > ikuste z an
-n + g- = -g-	izaten giñan > izategiñan

“**r**”aren segidan *d, g, j, k, t, z* baldin badare, errez galtzen da “**r**”a:

bihar da > bi**h**ada; bi**h**ar**k**o da > bi**h**ako da
bihar genduan > bi**h**agenduan; bi**h**ar juan > bi**h**ajuan
dakar**g**u > dakar**g**u; dakar**t** > dakar**t**; dakar**z**u > dakar**z**u

“**d**” bokal biren artian badago galdu egiten dogu, baiña haren jarraixan “**au**” edo

“**ei**” diptonguak badare mantendu egiten dogu:

ikus**i** dozu > ikusio**z**u; ekarri **d**esta > ekarri**e**sta
ekarri**k**o **d**etsut > ekarri**k**o**e**tsut > ekarri**k**otsut
emong**o** **d**etsut > emong**o**e**z**tsut > emong**o**tsut
esang**o** **d**etsak > esang**o**e**z**tsak > esang**o**tsak
baiña,
“ekarri dau” eta “segidu deixon”

“**g**” bokal biren artian (*d* bezela) jan egiten dogu berba egitteruzkuan:

egon > eon ; dago > dao ; zeguan > zeuan ; jeguan > jeuan

“j” aurreko kasu bixelan moduan, indar gitxiagokin izan arren, bokal biren artian galdu egiten dogu:

lajeikek > laeikek ; lajeukek > laeukek ; najjittuan > naittuan

“n” eta “d” alkartzen diranian, errez galtzen dira zein bata zein bestia, eta bata galdu ondoren bokal artian geratzen da bestia, gero galtzeko (Ikus:

J.M.Exebarriaren *Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa*

Etnolinguistikoa 284.orr.):

esaten detsa > esateisa ; izaten ditruk > izateitruk

esaten destan > esatestan; urtetzen desku > urtetzesku

esan desta > esaesta; emon detsut > emoetsut

4 - **NORK** 3. pertsona singularraren markia, **ezaugarririk eza** da. Parentesi arteko (a) hori loturazkua da izan, NOR singularra darian "n" Subjuntibo-atzizkixakin lotzeko darabiguna eta, analogixaz edo, NOR pluralera be eruaten doguna NORK = *hárek* darian. Ikus: (1.1.13)an esandakua.

2.3.7 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORK Subjuntibua Oraina

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK-m	HIK-n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NI		naixan	naixanan	naixan		naizun	naizuen	naixen
2 HI -m	hairan			haixan	haigun			haixen
3 HI - n	hairan			haixan	haigun			haixen
4 HA	deiran	deixan	deixanan	deixan	deigun	deizun	deizuen	deixen
5 GU		gaixazen	gaixanazen	gaixazen		gaizuzen	gaizuezen	gaixezen
6 ZU	zairazen			zaixazen	zaiguzen			zaixezen
7 ZUEK	zaixerazen zairazien			zaixezen zaixazien	zaixeguzen zaiguzien			zaixiezen zaixezien
8 HÁREK	deirazen	deixazen	deixanazen	deixazen	deiguzen	deizuzen	deizuezen	deixezen

1 - Ikus: (1.1.3)n NOR lehenengo eta hirugarren pertsonen ezaugarrixaz esandakua.

2 - NOR hirugarren pertsonako adizkixak dira gehixen darabiguzenak, letra baltzez darenak. NOR = *hi, gu, zu* eta *zuek*-i dagokixozen aditz-formak nekez entzungo dittugu.

2.3.8 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORK Subjuntibua Lehena

NOR = ni, hi, gu, zu, zuek					
NOR + denb.	Sustr.	NOR plur.	NORK	NOR plur.	Subj. atziz.
ne(n)	(g)i		da		n
he(n)	(g)i		a/ana		n
			(a)		n
ge(n)	(g)i		gu	ze	n
ze(n)	(g)i		zu	ze	n
ze(n)	(g)i	e	zue	ze	n
			e	ze	n

NOR = ha			NOR = hárek				
NORK + denb.	Sustr.	Lot/NORK pl. + Subj. atziz.	NORK + denb.	Sustr.	Lotura NORK pl.	NOR plur.	Subj. atz.
ne	(g)i	an	ne	(g)i	(a)	ze	n
he	(g)i	an	he	(g)i	(a)	ze	n
ze	(g)i	an	ze	(g)i	(a)	ze	n
ge(n)	(g)i	an	ge(n)	(g)i	(a)	ze	n
ze(n)	(g)i	an	ze(n)	(g)i	(a)	ze	n
ze(n)	(g)i	en	ze(n)	(g)i	e	ze	n
ze	(g)i	en	ze	(g)i	e	ze	n

1 - Sustraixan daguan (g) hori eta NOR eta NORK ezaugarrietako (n)a, Eibarren darabigun Subjuntibuan galduta daukaguz.

2 - **ia > ixa** ; **ie > ixe** ; "d" bokal artian > r.

3 - Ikus: (1.1.12)an, emakumiari dagokixon (-ana) **HIK** ezaugarrixaz esandakua.

4 - Parentesi arteko (a) hori loturazkua da izan, NOR singularra darian "n" Subjuntibo-atzizkixakin lotzeko darabiguna eta, analogiaz edo, NOR pluralera be eruaten doguna NORK hárek darian. Ikus: (1.1.13)an esandakua.

2.3.8 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORK Subjuntibua Lehena

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK-m	HIK-n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NI		neixan	neixanan	neixan		neizun	neizuen	neixen
2 HI - m	heiran			heixan	heigun			heixen
3 HI - n	heiran			heixan	heigun			heixen
4 HA	neixan	heixan	heixan heixanan*	(z)eixan	geixan	zeixan zeizun*	zeixen zeizuen*	(z)eixen
5 GU		geixazen	geixanazen	geixazen		geizuzen	geizuezen	geixezen
6 ZU	zeirazen			zeixazen	zeiguzen			zeixezen
7 ZUEK	zeixerazen			zeixezen	zeixeguzen			zeixiezen
8 HÁREK	neixazen	heixazen	heixazen heixanazen*	(z)eixazen	geixazen	zeixazen zeizuzen*	zeixezen zeizuezen*	(z)eixezen

1 - HAREK-HA (z)eixan eta ZUK-HA zeixan (n eta g galduta dittugunez), anbigutasuna sortzen jaku bixak bardin darabiguzenez.

2 - f4, f8 / g4, g8: **zeizun***, **zeizuzen*** / **zeizuen***, **zeizuezen*** ez dira gramatika aldetik zuzenak, analogiaz eta anbigutasunak kentzeko-edo sortutako adizkixak dira. Ikus: (1.1.15)en, honetaz esandakua.

3 - Hirugarren pertsonako adizkixak dira gehixen darabiguzenak eta Orainaldixan baiño gitxiago.

2.3.9 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORK Agintera

NOR + denbora	Sustraixa	NORK	Pluralgillia
na	(g)i	-	
-	-	k(a) / (a) n (a)	
e	(g)i	-	
ga	(g)i	-	z
-	-	zu	
-	-	zue	
e	(g)i	-	z

1 - Sustraixan daguan (g) hori galduta daukagu.

2 - Ikus: (1.1.12)n, emakumiari dagokixon (-ana) HIK ezaugarrixaz esandakua.

2.3.9 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORK Agintera

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK-m	HIK-n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NI		naik	naiñ	naixala		naizu	naizue	naixela
2 HI-m								
3 HI-n								
4 HA	deiran	eik <i>esaik</i> <i>botaik</i>	eiñ <i>esaiñ</i> <i>botaiñ</i>	deixala	deigun	eizu <i>esaizu</i> <i>botaizu</i>	eizue <i>esaizue</i> <i>botaizue</i>	deixela
5 GU		gaixaz	gaiñaz <i>gaixanaz*</i>	gaixazela		gaizuz	gaizuez	gaixezela
6 ZU								
7 ZUEK								
8 HÁREK	deirazen	eixaz <i>esaixaz</i> <i>botaixaz</i>	eiñaz <i>esaiñaz</i> <i>botaiñaz</i>	deixazela	deiguzen	eizuz <i>esaizuz</i> <i>botaizuz</i>	eizuez <i>esaizuez</i> <i>botaizuez</i>	deixezela

1 - Benetako **aginterazko** adizkixak "NORK bigarren pertsonia"renak dira: **b, c, f** eta **g** zutabetakuak;

a, d, e eta **h** zutabetako adizkixak Subjuntibokuak dira izan, baiña **agintzeko** be erabiltzen dittugu.

2 - 4. eta 8. lerruetako **b, c, f** eta **g** zutabetakuak dira erabillixenak: baltzez markauta darenak.

3 - 4. eta 8. lerruetako **b, c, f** eta **g** adizkixak, (*HIK-(ha,harek)*; *ZUK-* eta *ZUEK-(ha,harek)*),

baiezko perpausetan, laguntzaillia beste aditz bati lotzerakuan eratzen dan adizki konposatuaren bi elementuak (aditz nagusixa eta laguntzaillia) lotuta idatzi eta ahoskatuko dira, aditz nagusixa *bokalez* edo *n-z* amaitzen bada; eta halan, nahiz eta laguntzaillia tartian izan, trinko edo sintetiko itxura guztia daukan adizkixa sortzen jaku. Hona hemen **Aditz nagusixa** eta **Laguntzaillia** lotzeko erregelia:

– *Laguntzaillia beti E barik,*

– *Aditz nagusixa:*

- **I, N** edo **U**-z amaitzen bada, bere azken **I, N** edo **U** barik: *erosi* > *eros-*, *esan* > *esa-*,
kontau > *konta-*, *siñistu* > *siñist-*, *konpondu* > *konpond-*; **edo**
- **A, E**, edo **O**-z amaitzen bada, ezer galdu barik: *bota-*, *erre-*, *jaso-*

(Ikusi paradigma honetan **esan** eta **bota** aditz nagusixen adizkixak, letra etzanez jarritakuak, erregela honen arabera tajutu dittugunak)

ezezko perpausetan bananduta idatziko dira aditz nausixa eta laguntzaillia: *ez eik esan*, *ez eik bota*.

4 - Ikus: (1.1.12)n, emakumiari dagokixon (*-ana*) **HIK** ezaugarrixaz esandakua. Hortik: *gaixanaz**.

2.4. LAGUNTZAILLIA, EUTSI/EGI : NOR-NORI-NORK

Oharra: *EDUN + TSI > EUTSI. Bizkaieraz, NOR-NORI-NORK aditz-jokorako espezializau dan laguntzaillia EUTSI dogu, eta *EDUN berbera da -TSI atzizkiaz osaturik. (Ikus Aditza-Eskola Apunteak 2-Labeyru Ikastegia, 42. eta 84. orrialdiak)

2.4.1 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Indikatibua Oraiña

Adizki normalak				Hittanorako adizki alokutibuak			
NOR + denb. + sustraixa	NORI	NORK	NOR pluralg.	NOR + sustraixa	NORI	NORK	NOR pluralg.
de(u)	sta	t		je(u)	sta	at/nat	
	k/a-n/na	k/n			-	-	
	tsa	-			tsa	k/n	
	sku	gu			sku	agu/nagu	
	tsu	zu			-	-	
de(u)	tsue	zue		-	-		
	tse	e	z	je(u)	tse	ek/ne	z

Parentesi arteko (U), NORI = HIRI daniel bakarrik darabigu.

2.4.1.1 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Indikatibua Oraina (Nor = ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		destak	destan	desta jestak jestan		destazu	destazue	deste jestek jestane
2 HIRI - m	deuat			deuk	deuagu			deue
3 HIRI - n	deunat			deun	deunagu			deune
4 HARI	detsat jetsat jetsanat	detsak	detsan	detsa jetsak jetsan	detsagu jetsagu jetsanagu	detsazu	detsazue	detse jetsek jetsane
5 GURI		deskuk	deskun	desku jeskuk jeskun		deskuzu	deskuzue	deskue jeskuek jeskune
6 ZURI	detsut			detsu	detsugu			detsue
7 ZUERI	detsuet			detsue	detsuegu			detsue
8 HÁRERI	detset jetset jetsenat	detsek	detsen	detse jetsek jetsen	detsegu jetsegu jetsenagu	detsezu	detsezue	detse jetsek jetsene

1 - Erabilleran eta aditz nagusixakin alkartzarakuan, hasierako “d” (adizki normaletan) eta “j” (hittanokuetan) jatia normala da. Baiña 2 eta 3. lerruetako adizkixetan ez da “d”rik jaten.

Adibidiak: *emon destazu > emoestazu, emon jestak > emoestak*, baiña *emon deuat...* nahiz eta *emongo deuat > emongeuat*. Ikus: (1.2.2) Aditz-ortografixara ekarri ez ditugunak.

2 - Erabilleran: **agu > au ; egu > eu** baiña **ugu = ugu**.

3 - *h7-n detsuee* biharko leuke, baiña hemen **ee > e** egitten dogu, orduan *detsuee > detse*, nahiz eta *d7-ren* bardiña izan.

4 - *h8-n detsee, jetseek* biharko leuke, baiña *detsee > detse* eta *jetseek > jetsek* egitten dogu, nahiz eta *d8-ko* adizkixen bardiñak suertatzen jakuzen.

2.4.1.2 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Indikatibua Oraiña (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		destazak	destanaz	destaz jestaz jestanaz		destazuz	destazuez	destez jestez jestanez
2 HIRI - m	deuaraz			deuaz	deuaguz			deuez
3 HIRI - n	deunaraz			deunaz	deunaguz			deunez
4 HARI	detsaraz jetsaraz jetsanaraz	detsazak	detsanaz	detsaz jetsaz jetsanaz	detsaguz jetsaguz jetsanaguz	detsazuz	detsazuez	detsez jetsez jetsanez
5 GURI		deskuaz	deskunaz	deskuz jeskuaz jeskunaz		deskuzuz	deskuzuez	deskuez jeskuez jeskunez
6 ZURI	detsuraz			detsuz	detsuguz			detsuez
7 ZUERI	detsueraz			detsuez	detsueguz			detsuez
8 HÁRERI	detseraz jetseraz jetsenaraz	detsezak	detsenaz	detsez jetsez jetsenaz	detseguz jetseguz jetsenaguz	detsezuz	detsezuez	detsez jetsez jetsenez

1 - "b" zutabetan, ZER pluralen Eibarko amaiera-ereduari jarraituz, *destaaz, detsaaz, detseaz*, biharko leuke baiña argittasunaren mesedetan bizkaieriaren eredia ezarri dogu: *destazak, detsazak, detsezak*. Ikus: (1.1.22)n hittanoko adizkixetan ZER pluralerako amaieren gaiñian esandakua.

2 - *h7-n detsueez* biharko leuke, baiña hemen *ee > e* egitten dogu, orduan *detsueez > detsez*, nahiz eta *d7-ren* bardiña izan.

3 - *h8-n detseez, jetseez* biharko leuke, baiña *detseez > detsez* eta *jetseez > jetsez* egitten dogu, nahiz eta *d8-ko* adizkixen bardiñak geratzen jakuzen.

2.4.2 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Indikatibua Lehena

Adizki normalak					Hittanorako adizki alokutibuak					
NORK + denbora + sustraixa	NORI	NORK pluralg.	NOR pluralg.	Denbora atzizkixa	NORK + denbora + sustraixa	NORI	NORK pluralg.	Sexu markia	NOR pluralg.	Denbora atzizkixa
ne(u)	sta		ze	n	naje(u)	sta		a/na	ze	n
he(u)	a/na		ze	n	-	-		-	-	-
(z)e(u)	tza		ze	n	je(u)	tza		a/na	ze	n
ge(u)n	sku		ze	n	g(aj)e(u)n	sku		a/na	ze	n
ze(un)	tsu		ze	n	-	-		-	-	-
ze(un)	tsue	e	ze	n	-	-		-	-	-
(z)e(u)	tse	e	ze	n	je(u)	tse	e	a/na	ze	n

1 - NORK **GUK**, **ZUK** eta **ZUEK**-en kasuan normalago erabiltzen dira, taula honetako (*ge-*, *ze-*) “NORK+denb.” ezaugarrixaz gainera, beste NORK ezaugarri bat (*GU*, *ZU*)

NORI-ren ondoren ipiñiz moldautako adizkixak: *gentsagun**, *zetsazun**, *zetsazuen**. Ikus: (1.1.15)en arazo honetaz jarritakua.

2 - Parentesi arteko (U), NORI = HIRI danian bakarrik darabigu. Ikus: (1.1.14)an esandakua.

3 - NORK = GU alokutibuan (*aj*) ezaugarririk ez darabigu eta ez dogu paradigmetan jarriko. Ikus: (1.1.21)en eta laugarren paragrafuan honetaz esandakua.

4 - Hittanuan *NORK* = *hárek* danian, eta emakumiarena dan *noka*-ko kasuan, adizkixaren amaieria:

*e + na + n = enan > *naen > nen* eta *e + na + ze + n = enazen > *naezen > nezen*

2.4.2.1 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Indikatibua Lehena (NOR/ZER = ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		hestan	hestan hestanan*	(z)estan jestan jestanan		ze(n)stan zestazun*	ze(n)sten zestazuen*	(z)esten jesten jestanen
2 HIRI - m	neuan			(z)euan	geuan geuagun*			(z)euen
3 HIRI - n	neunan			(z)eunan	geunan geunagun*			(z)eunen
4 HARI	netsan na(j)etsan na(j)etsanan	hetsan	hetsan hetsanan*	(z)etsan jetsan jetsanan	gentsan gentsagun* gentsan gentsagun* gentsanan gentsanagun*	zentsan zetsazun*	zentsen zetsazuen*	(z)etsen jetsen jetsanen
5 GURI		heskun heskuan*	heskun heskunan*	(z)eskun jeskuan jeskunan		ze(n)skun zeskuzun*	ze(n)skuen zeskuzuen*	(z)eskuen jeskuen jeskunen
6 ZURI	netsun			(z)etsuen	gentsun gentsugun*			(z)etsuen
7 ZUERI	netsuen			detsuez	gentsuen gentsuegun*			(z)etsuen
8 HÁRERI	netsen na(j)etsen na(j)etsenan	hetsen	hetsen hetsenan*	(z)etsen jetsen jetsenan	gentsen gentsegun* gentsen gentsegun* gentsenan gentsenagun*	zentsen zetsezun*	zentsen zetsezuen*	(z)etsen jetsen jetsenen

1 - Erabilleran hittanuan “j” hori jatia normala da, bokal artian doianian.

2 - “b” eta “c” zutabietako (*)z markauta daren adizkixak ez dira gramatika aldetik zuzenak, baiña halaxe darabiguz. Ikus: (1.1.1).

3 - “e”, “f” eta “g” zutabietako (*)dunak be ez dira gramatika aldetik zuzenak, NORK ezaugarria, aurrekuaz aparte, atzian be badaroielako; hau jokaerian nahiko logikua da izan, eta badiruri 3. pertsonako NORK adizkixetatik bereizteko premiñiak eraginda-edo sortutakuak dirala. Izan be, bittarteko “n” a NERI eta GURI kasuetan errez galtzen dogun ezkerro (zestan, zeskun), 3. pertsonako NORK adizkixekin (zestan, zeskun) bardintasunak sortzen jakuz. Baztargarrixago dira, NORK 3. pertsonako aditz-oiñarrixari NORK ezaugarriak ezarritz moldautakuak: (z)etsagun, (z)etsugun, (z)etsazun... Hónek ez dittugu paradigman jarri be egiñ. Ikus: (1.1.15)en arazo honetaz jarritakua.

4 - g8, h7 eta h8-n : ee > e egitten dogu.

2.4.2.2 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Indikatibua Lehena (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		hestazen	hestazen hestanazen*	(z)estazen jestazen jestanazen		ze(n)stazen zestazuzen*	ze(n)stezen zestazuezen*	(z)estezen jestezen jestanezen
2 HIRI - m	neuzazen			(z)euazen	geuazen geuaguzen*			(z)euezen
3 HARI - n	neunazen			(z)eunazen	geunazen geunaguzen*			(z)eunezen
4 HARI	netsazen na(j)etsazen na(j)etsanazen	hetsazen	hetsazen hetsanazen*	(z)etsazen jetsazen jetsanazen	gentsazen gentsaguzen* gentsazen gentsaguzen* gentsanazen gentsanaguzen*	zentsazen zetsazuzen*	zentsezen zetsazuezen*	(z)etsezen jetsezen jetsanezen
5 GURI		heskuzen heskuazen*	heskuzen heskunazen*	(z)eskuzen jeskuazen jeskunazen		ze(n)skuzen zeskuzuzen*	ze(n)skuezen zesküzuezen*	(z)eskuezen jeskuezen jeskunezen
6 ZURI	netsuzen			(z)etsuzen	gentsuzen gentsuguzen*			(z)etsuezen
7 ZUERI	netsuezen			(z)etsuezen	gentsuezen gentsueguzen*			(z)etsuezen
8 HÁRERI	netsezen na(j)etsezen na(j)etsenazen	hetsezen	hetsezen hetsenazen*	(z)etsezen jetsezen jetsenazen	gentsezen gentseguzen* gentsezen gentseguzen* gentsenazen gentsenaguzen	zentsezen zetsezuzen*	zentsezen zetsezuezen*	(z)etsezen jetsezen jetsenezen

2.4.3 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Baldintza

Adizki normalak					Hittanorako adizki alokutibuak					
Baldintza	NORK + denbora + sustraixa	NORI	NORK pluralg.	NOR pluralg.	Baldintza	NORK + denbora + sustraixa	NORI	NORK pluralg.	Sexu markia	NOR
ba	ne(u)	sta		z	ba	n(aj)e(u)	sta		k/n	z
ba	he(u)	k/n		z	ba	-	-		-	-
ba	le(u)	tse		z	ba	l(aj)e(u)	tse		k/n	z
ba	ge(u)n	sku		z	ba	g(aj)e(u)n	sku		k/n	z
ba	ze(un)	tsu		z	ba	-	-		-	-
ba	ze(un)	tsue	e	z	ba	-	-		-	-
ba	le(u)	tse	e	z	ba	l(aj)e(u)	tse	e	k/n	z

1 - NORK **GUK**, **ZUK** eta **ZUEK**-en kasuan normalago erabiltzen dira, taula honetako (*ge-*, *ze-*) “NORK+denb” ezaugarrixaz gainera, beste NORK ezaugarri bat (*GU*, *ZU*)

NORI-ren ondoren ipiñiz moldautako adizkixak: *bagentsagu**, *bazetsazu**, *bazetsazue**. Ikus: (1.1.15)en arazo honetaz jarritakua.

2 - Parentesi arteko (U), NORI = HIRI darian bakarrik darabigu. Ikus: (1.1.14)an esandakua.

3 - NORK = GU alokutibuan (*aj*) ezaugarririk ez darabigu eta ez dogu, kasu honetan, paradigmatan jarriko. Ikus:(1.1.21)en eta laugarren paragrafuan honetaz esandakua.

3 - Hittanuan *NORK* = *hárek* darian, eta emakumiarena dan *noka*-ko kasuan, adizkixaren amaieria:

$e + na = ena > *nae > ne$ eta $e + na + z = enaz > *naez > nez$

2.4.3.1 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Baldintza (NOR/ZER = ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		bahesta	bahesta bahestan*	balesta bal(aj)estak bal(aj)estan		baze(n)sta baze(n)stazu*	baze(n)ste baze(n)stazue*	baleste bal(aj)estek bal(aj)esten
2 HIRI - m	baneuk			baleuk	bageunk bageuagu*			baleue
3 HIRI - n	baneun			baleun	bageun bageunagu*			baleune
4 HARI	banetsa bana(j)etsak bana(j)etsan	bahetsa	bahetsa bahetsan*	baletsa bal(aj)etsak bal(aj)etsan	bagentsa bagentsagu* bagentsak bagentsagu* bagentsan bagentsanagu*	bazentsa bazentsazu*	bazentse bazentsazue*	baletse bal(aj)etsek bal(aj)etsen
5 GURI		bahesku	bahesku baheskun*	balesku bal(aj)eskuk bal(aj)eskun		baze(n)sku baze(n)skuzu*	baze(n)skue baze(n)skuzue*	baleskue bal(aj)eskuek bal(aj)eskune
6 ZURI	banetsu			baletsu	bagentsu bagentsugu*			baletsue
7 ZUERI	banetsue			baletsue	bagentsue bagentsuegu*			baletsue
8 HÁRERI	banetse bana(j)etsek bana(j)etsen	bahetse	bahetse bahetsen*	baletse bal(aj)etsek bal(aj)etsen	bagentse bagentsegu* bagentsek bagentsegu* bagentsen bagentsenagu*	bazentse bazentsezu*	bazentse bazentsezue*	baletse bal(aj)etsek bal(aj)etsene

- 1- Erabilleran, hittanuan “j”a errez jausten jaku, bokal artian doianian.
- 2 - “c” zutabeko (*)z markauta daren adizkixak ez dira gramatika aldetik zuzenak, baiña halaxe darabiguz. Ikus: (1.1.1).
- 3 - “e”, “f” eta “g” zutabietako (*)dunak be ez dira gramatika normatibuen aldetik zuzenak, NORK ezaugarrixa, aurrekuaz aparte, atzian be badaroielako; Ikus: (1.1.15)en arazo honetaz jarritakua, baitta (2.4.2.1)ko 3. oharra be. Baztargarrixago deritxegu, asko entzuten diran arren, NORK 3. pertsonako aditz-oiñarrixari NORK ezaugarrixok ezarriz moldautakueri: balestazu*, baletsazu*, baleskuzu*,....

4 - **baleskit***, **baleskixo***, **baleskigu***... eta holakuak ez dira BALDINTZAzko adizki jatorrak ONDORIXUarena dan KE markia (*ke > ki*) dauke barruan eta.

Erabili bai badarabiguz baiña ez dira zuzenak. Ikus: (1.1.8)n esandakua.

5 - “d” eta “h” zutabietako adizkixetan, “aj” alokutibo-markia nahiko galduta daukagu; hori barik darabiguz jeneralian.

2.4.3.2 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Baldintza (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		bahestaz	bahestaz bahestanaz*	balestaz bal(aj)estazak bal(aj)estanaz		baze(n)staz baze(n)stazuz*	baze(n)staz baze(n)stazuez*	balestaz bal(aj)estazak bal(aj)estanaz
2 HIRI - m	baneuaz			baleuaz	bageuaz bageuaguz*			baleuez
3 HIRI - n	baneunaz			baleunaz	bageunaz bageunaguz*			baleunez
4 HARI	banetsaz bana(j)etsaz bana(j)etsanaz	bahetsaz	bahetsaz bahetsanaz*	baletsaz bal(aj)etsazak bal(aj)etsanaz	bagentsaz bagentsaguz* bagentsazak bagentsaguzak* bagentsanaz bagentsanaguz*	bazentsaz bazetsazuz*	bazentsezz bazetsazuez*	baletsez bal(aj)etsezak bal(aj)etsenaz
5 GURI		baheskuz baheskuaz*	baheskuz baheskunaz*	baleskuz bal(aj)eskuaz bal(aj)eskunaz		baze(n)skuz bazeskuzuz*	baze(n)skuez bazeskuzuez*	baleskuez bal(aj)eskuezak bal(aj)eskunaz
6 ZURI	banetsuz			baletsuz	bagentsuz bagentsuguz*			baletsuez
7 ZUERI	banetsuez			baletsuez	bagentsuez bagentsueguz*			baletsueez
8 HÁRERI	banetsez bana(j)etsez bana(j)etsenaz	bahetsez	bahetsez bahetsenaz*	baletsez bal(aj)etsezak bal(aj)etsenaz	bagentsez bagentseguz* bagentsezak bagentseguzak* bagentsenaz bagentsegunaz*	bazentsez bazetsezuz*	bazentseez bazetsezuez*	baletsez bal(aj)etsezak bal(aj)etsenaz

1 - ZER BAKARRAri (2.4.3.1)en egindako ohar ber-berak egin leikez hemen be.

2 - Gizonezkuari dagokixozen hittano-amaiera batzuek, argittasunaren mesederako, bizkaieriaren eredu orokorrari jarraituz ipiñi dittugu: *balestazak, baletsazak, baletsezak, bagentsazak, bagentsezak, balestazak, baletsezak, baleskuezak, baletsezak*. Ikus: (1.1.22)n hittanoko adizkixetan ZER pluraletako amaieren gaiñian esandakua.

2.4.4 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Ondorixua

Indikatiboko Lehenaldixa erabiltzen da geruago eta gehixago Ondorixuaren ordezt: *esango netsan**, *esango neskixo* edo *esango netsake* erabilli biharrian. Ondorixua erabiltzen darian, (1.1.16)an esan dogunez, eredu bi darabiguz, segun eta “KE” (ondorixuaren markia) “NORI”ren aurretik edo atzetik ipintzen dan:

2.4.4.1: “a” eredu, aurretik doiana, bizkai-joerakua.

2.4.4.2: “b” eredu, atzetik doiana, giputz-joerakua, Eibarren bestia baiño zabalduago daguana.

2.4.4.1 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Ondorixua (“a” eredu: bizkai-joerakua)

Adizki normalak					Hittanorako adizki alokutibuak					
NORK + denbora + sustraixa	ONDORIXO markia KE > KI	NORI	NORK pluralg.	NOR pluralg.	NORK + denbora + sustraixa	ONDORIXO markia KE > KI	NORI	NORK pluralg.	Sexu markia	NOR
ne(u)s	ki	t/da		z	n(aj)e(u)s	ki	t/da		k/n	z
he(u)s	ki	k/n		z	-	-	-		-	z
le(u)s	ki	o		z	l(aj)e(u)s	ki	o		k/n	z
ge(u)ns	ki	gu		z	g(aj)e(u)ns	ki	gu		k/n	z
ze(un)s	ki	zu		z	-	-	-		-	z
ze(un)s	ki	zue	e	z	-	-	-		-	z
le(u)s	ki	oe	e	z	l(aj)e(u)s	ki	oe	e	k/n	z

1 - Parentesi arteko (U), NORI = HIRI danian bakarrik darabigu. Ikus: (1.1.14)an esandakua.

2 - NORK = GU alokutibuan (*aj*) ezaugarriarik ez darabigu, eta ez dogu, kasu honetan, paradigmetan jarriko. Ikus: (1.1.21)en laugarren paragrafua.

3 - Hittanuan NORK = *hárek* danian, eta emakumiarena dan *noka*-ko kasuan, adizkixen amaieria:

kida + e + n > *kiraen > **kirane** ; u + e + n = uen > **une** ; o + e + n = oen > **one**; oe + e + n = *oeen > **uene**.

4 - ki + da > **kira**, eta ki + t + e > **kitte**, ki + t + ek > **kittek**.

5 - Ondorixo-markia KE da berez, baiña gaur egunian, NORI ezaugarrixaren aurrian doianian, KI bihurtu da, datibo-aurreko markioneekin bat egiñez.

2.4.4.1.1 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Ondorixua “a” eredia (NOR/ZER=ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		heskitt heskirak*	heskitt heskirak*	leskitt l(aj)eskirak l(aj)eskiran		ze(n)skitt	ze(n)skitte	leskitte l(aj)eskittek l(aj)eskirane
2 HIRI - m	neuskik			leuskik	geu(n)skik			leuskiek
3 HIRI - n	neuskiñ			leuskiñ	geu(n)skiñ			leuskiñe
4 HARI	neskixo n(aj)eskixok n(aj)eskixon	heskixo heskixok*	heskixo heskixon*	leskixo l(aj)eskixok l(aj)eskixon	ge(n)skixo ge(n)skixok ge(n)skixon	ze(n)skixo	ze(n)skixue	leskixue l(aj)eskixuek l(aj)eskixone
5 GURI		heskigu heskiguk*	heskigu heskigun*	leskigu l(aj)eskiguk l(aj)eskigun		ze(n)skigu	ze(n)skigue	leskigue l(aj)eskiguek l(aj)eskigune
6 ZURI	neskizu			leskizu	ge(n)skizu			leskizue
7 ZUERI	neskizue			leskizue	ge(n)skizue			leskizue
8 HÁRERI	neskixue n(aj)eskixuek n(aj)eskixone	heskixue heskixuek*	heskixue heskixone*	leskixue l(aj)eskixuek l(aj)eskixone	ge(n)skixue ge(n)skixuek ge(n)skixone	ze(n)skixue	ze(n)skixue	leskixue l(aj)eskixuek l(aj)eskixuene

1 - Erabilleran, hittuan “j”a errez jausten jaku bokal artian doianian eta ez dogu ahoskatzen.

2 - “b” eta “c” zutabetan (*)z markauta daren adizkixak ez dira gramatika aldetik zuzenak, baiña halaxe darabiguz batez be “c” zutabekuak. Ikus: (1.1.1).

3 - “aj” alokutibo markia nahiko galduta daukagu eta Ondorixuan gehixago entzuten dira “aj” bako adizkixak.

4 - Aditz-modu honek daukan erabilpen urrixaren barruan, adizki zuzenekin batera, ziharo baztertzekuak diran holako adizkixak be entzuten dira: *leskirazu*/leskirazue**, *leskixozu*/leskixozue**, *leskiguzu*/lekiguzue**, *leskixuezu*/leskixuezue**. Ikus: (1.1.15).

2.4.4.1.2 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Ondorixua “a” eredua (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		heskiraz	heskiraz heskiranaz*	leskiraz l(aj)eskirazak l(aj)eskiranaz		ze(n)skiraz	ze(n)skittez	leskittez l(aj)eskititezak l(aj)eskiranez
2 HIRI - m	neuskiaz			leuskiaz	geu(n)skiaz			leuskiezak
3 HIRI - n	neuskiñaz			leuskiñaz	geu(n)skiñaz			leuskiñez
4 HARI	neskioxoz n(aj)eskixuaz n(aj)eskixonaz	heskioxoz heskixuaz*	heskioxoz heskixonaz*	leskioxoz l(aj)eskixuaz l(aj)eskixonaz	ge(n)skioxoz ge(n)skixuaz ge(n)skixonaz	ze(n)skioxoz	ze(n)skixueuz	leskixueuz l(aj)eskixueuzak l(aj)eskixoneuz
5 GURI		heskiguz heskiguaz*	heskiguz heskigunaz*	leskiguz l(aj)eskiguaz l(aj)eskigunaz		ze(n)skiguz	ze(n)skigueuz	leskigueuz l(aj)eskigueuzak l(aj)eskiguneuz
6 ZURI	neskizuz			leskizu	ge(n)skizuz			leskizueuz
7 ZUERI	neskizueuz			leskizue	ge(n)skizueuz			leskizueuz
8 HÁRERI	neskixueuz n(aj)eskixueuz n(aj)eskixoneuz	heskixueuz	heskixueuz heskixoneuz*	leskixue l(aj)eskixueuzak l(aj)eskixoneuz	ge(n)skixueuz ge(n)skixueuzak ge(n)skixoneuz	ze(n)skixueuz	ze(n)skixueuz	leskixueuz l(aj)eskixueuzak l(aj)eskixueneuz

1 - Aurreko orrialdian jarritako oharrak egin leikez hemen be.

2 - Baldintzan egin dogun moduan, gizonezkuari dagokixozen hittano-amaiera batzuek, argittasunaren mesederako, bizkaieraren eredu orokorrari jarraituz ipiñi dittuguz: *leskirazak, leskixueuzak, genskixueuzak, leskititezak, leskixueuzak, leskigueuzak*. Ikus: (1.1.22).

2.4.4.2 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Ondorixua (“b” eredu: giputz-joerakua)

Adizki normalak					Hittanorako adizki alokutibuak					
NORK + denbora + sustraixa	NORI	ONDORIXO markia	NORK pluralg.	NOR pluralg.	NORK + denbora + sustraixa	NORI	ONDORIXO markia	NORK pluralg.	Sexu markia	NOR pluralg.
ne(u)	sta	ke		z	n(aj)e(u)	sta	ke		k/n	z
he(u)	a/na	ke		z	-	-	-		-	-
le(u)	tsa	ke		z	l(aj)e(u)	tsa	ke		k/n	z
ge(u)n	sku	ke		z	g(aj)e(u)n	sku	ke		k/n	z
ze(un)	tsu	ke		z	-	-	-		-	-
ze(un)	tsue	ke	e	z	-	-	-		-	-
le(u)	tse	ke	e	z	l(aj)e(u)	tse	ke	e	k/n	z

1 - Parentesi arteko (U), NORI = HIRI danian bakarrik darabigu. Ikus: (1.1.14).

2 - NORK = GU alokutibuan (aj) ezaugarririk ez darabigu, eta ez dogu, kasu honetan, paradigmetan jarriko. Ikus: (1.1.21)en laugarren paragrafua.

3 - ee > **ie** ; e + n = en > **ne**.

2.4.4.2.1 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Ondorixua “b” eredia (NOR/ZER = ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		hestake hestakek*	hestake hestaken*	lestake l(aj)estakek l(aj)estaken		ze(n)stake	ze(n)stakie	lestakie l(aj)estakiek l(aj)estakene
2 HIRI - m	neucke			leuake	geuake			leuakie
3 HIRI - n	neunake			leunake	geunake			leunakie
4 HARI	netsake n(aj)etsakek n(aj)etsaken	hetsake hetsakek*	hetsake hetsaken*	letsake l(aj)etsakek l(aj)etsaken	gentsake gentsakek gentsaken	zentsake	zentsakie	letsakie l(aj)etsakiek l(aj)etsakene
5 GURI		heskuke heskukek*	heskuke heskuken*	leskuke l(aj)eskukek l(aj)eskuken		ze(n)skuke	ze(n)skukie	leskukie l(aj)eskukiek l(aj)eskukene
6 ZURI	netsuke			letsuke	gentsuke			letsukie
7 ZUERI	netsueke			letsueke	gentsueke			letsuekie
8 HÁRERI	netseke n(aj)etsekek n(aj)etseken	hetseke hetsekek*	hetseke hetseken*	letseke l(aj)etsekek l(aj)etseken	gentseke gentsekek gentseken	zentseke	zentsekie	lletsekie l(aj)etsekiek l(aj)etsekene

1 - Erabilleran, hittanuan “j”a errez jausten jaku bokal artian doianian eta ez dogu ahoskatzen.

2 - “b” eta “c” zutabetan (*)z markauta daren adizkixak ez dira gramatika aldetik zuzenak, baiña halaxe darabiguz, batez be “c” zutabekuak. Ikus: (1.1.1).

3 - “aj” alokutibo markia nahiko galduta daukagu eta, aditz-modu honek daukan erabilpen urrixan, gehixago entzuten dira “aj” bako adizkixak.

4 - Hau aditz-moduau geruago eta gitxiago darabigu eta erabilpen urri horren barruan, adizki zuzenekin batera ziharo baztertekuak diran holako adizkixak be entzuten dira: *lestakezu/zuke**, *letsakezu/zuke**..., *lestakezue/zueke**, *letsakezue/zueke**,... Ikus: (1.1.15).

2.4.4.2.2 - Laguntzaillia, EUTSI: NOR-NORI-NORK Ondorixua “b” eredua (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		hestakez hestakiaz*	hestakez hestakenaz*	lestakez l(aj)estakiaz l(aj)estakenaz		ze(n)stakez	ze(n)stakiez	lestakiez l(aj)estakiezak l(aj)estakenez
2 HIRI - m	neuakez			leuakez	geuakez			leuakiez
3 HIRI - n	neunakez			leunakez	geunakez			leunakiez
4 HARI	netsakez n(aj)etsakiaz n(aj)etsakenaz	hetsakez hetsakiaz*	hetsakez hetsakenaz*	letsakez l(aj)etsakiaz l(aj)etsakenaz	gentsakez gentsakiaz gentsakenaz	zentsakez	zentsakiez	letsakiez l(aj)etsakiezak l(aj)etsakenez
5 GURI		heskukez heskukiaz*	heskukez heskukienaz*	leskukez l(aj)eskukiaz l(aj)eskukienaz		ze(n)skukez	ze(n)skukiez	leskukiez l(aj)eskukiezak l(aj)eskukenez
6 ZURI	netsukez			letsukez	gentsukez			letsukiez
7 ZUERI	netsuekez			letsuekez	gentsuekez			letsuekiez
8 HÁRERI	netseke n(aj)etsekiaz n(aj)etsekenaz	hetsekez hetsekiaz*	hetsekez hetsekenaz*	letsekez l(aj)etsekiaz l(aj)etsekenaz	gentsekez gentsekiaz gentsekenaz	zentsekez	zentsekiez	letsekiez l(aj)etsekiezak l(aj)etsekenez

1 - Honen aurreko orrialdian jarritako oharrak balio dabe honako be.

2 - Gizonezkuari dagokixozen hittano-amaiera batzuek, argittasunaren mesederako, bizkaieraren eredu orokorrari jarraituz ipiñi dittuguz:

lestakiezak, letsakiezak, leskukiezak, letsekiezak.

2.4.5 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Ahalezkua Oraina-Hipotetikua

Adizki normalak					Hittanorako adizki alokutibuak					
NORK + denbora + sustraixa	AHAL markia KE > KI	NORI	NORK pluralg.	NOR pluralg.	NORK + denbora + sustraixa	AHAL markia KE > KI	NORI	NORK pluralg.	Sexu markia	NOR pluralg.
nei	ki	t/da		z	n(aj)ei	ki	t/da		k/n	z
hei	ki	k/n		z	-	-	-		-	-
lei	ki	o		z	l(aj)ei	ki	o		k/n	z
gei(n)	ki	gu		z	g(aj)ei(n)	ki	gu		k/n	z
zei(n)	ki	zu		z	-	-	-		-	-
zei(n)	ki	zue	e	z	-	-	-		-	-
lei	ki	oe	e	z	l(aj)ei	ki	oe	e	k/n	z

1 - kida > **kira**, kida + e + n = *kiraen > **kirane** eta kit + e > **kitte**, kit + ek > **kittek**

2 - NORK = GU alokutibuan (aj) ezaugarririk ez darabigu, eta ez dogu, kasu honetan, paradigmatan jarriko. Ikus: (1.1.21)en laugarren paragrafua.

3 - KE ahal-markia desagertu egiten da NORI-ren aurrrian doianian, KI datibo-aurrekuonekin bat eginez.

2.4.5.1. - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Ahalezkua Oraina-Hipotetikua (NOR/ZER = ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		heikitt heikirak*	heikitt heikiran*	leikitt l(aj)eikirak l(aj)eikiran		zeinkitt	zeinkitte	leikitte l(aj)eikittek l(aj)eikirane
2 HIRI - m	neikik			leikik	geinkik			leikiek
3 HIRI - n	neikiñ			leikiñ	geinkiñ			leikiñe
4 HARI	neikixo n(aj)eikixok n(aj)eikixon	heikixo heikixok*	heikixo heikixon*	leikixo l(aj)eikixok l(aj)eikixon	geinkixo geinkixok geinkixon	zeinkixo	zeinkixue	leikixue l(aj)eikixuek l(aj)eikixone
5 GURI		heikigu heikiguk*	heikigu heikigun*	leikigu l(aj)eikiguk l(aj)eikigun		zeinkigu	zeinkigue	leikigue l(aj)eikiguek l(aj)eikigune
6 ZURI	neikizu			leikizu	geinkizu			leikizue
7 ZUERI	neikizue			leikizue	geinkizue			leikizue
8 HÁRERI	neikixue n(aj)eikixuek n(aj)eikixone	heikixue heikixuek*	heikixue heikixone*	leikixue l(aj)eikixuek l(aj)eikixone	geinkixue geinkixuek geinkixone	zeinkixue	zeinkixue	leikixue l(aj)eikixuek l(aj)eikixuene

1 - Aditz modu hau gitxi erabiltzen da eta , honen ordez, Indikatiboko formak erabiltzeko joera handixa dago: **“ahal destak”** **“heikitt”**en ordez... eta abar.

2 - NOR-NORI sailleko adizkixekin bardintasanak dittugu: HAREK HARI **emon leikixo** - HA HARI **juan leikixo**

3 - Ikus: Sarrerako (1.1.2), (1.1.6) eta (1.1.9) Ahalezkuaz idatzittakua.

4 - Ikus: (1.1.1)en, “b” eta “c” zutabetan markauta daren adizkixen gainian esandakua.

2.4.5.2. - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Ahalezkua Oraiña-Hipotetikua (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		heikiraz	heikiraz heikiranaz*	leikiraz l(aj)eikiraz l(aj)eikiranaz		zeinkiraz	zeinkitzez	leikitzez l(aj)eikitzezak l(aj)eikiranez
2 HIRI - m	neikiaz			leikiaz	geinkiaz			leikiezak
3 HIRI - n	neikiñaz			leikiñaz	geinkiñaz			leikiñez
4 HARI	neikixoz n(aj)eikixuaz n(aj)eikixonaz	heikixoz heikixuaz*	heikixoz heikixonaz*	leikixoz l(aj)eikixuaz l(aj)eikixonaz	geinkixoz geinkixuaz geinkixonaz	zeinkixoz	zeinkixuez	leikixuez l(aj)eikixuezak l(aj)eikixonez
5 GURI		heikiguz heikiguaz*	heikiguz heikigunaz*	leikiguz l(aj)eikiguaz l(aj)eikigunaz		zeinkiguz	zeinkiguez	leikiguez l(aj)eikiguezak l(aj)eikigunaz
6 ZURI	neikizuz			leikizuz	geinkizuz			leikizuez
7 ZUERI	neikizuez			leikizuez	geinkizuez			leikizuez
8 HÁRERI	neikixuez n(aj)eikixuezak n(aj)eikixonez	heikixuez	heikixuez heikixonez*	leikixuez l(aj)eikixuezak l(aj)eikixonez	geinkixuez geinkixuezak geinkixonez	zeinkixuez	zeinkixuez	leikixuez l(aj)eikixuezak l(aj)eikixonez

1 - Bizkaieraren ereduari jarraituz, jarri dittugun hittano-amaiera batzuek, gizonezkuari dagokioxozenak: *leikitzezak*, *leikiezak*, *leikixuezak*, *leikiguezak*, *neikixuezak*, *geinkixuezak*. Ikus: (1.1.22).

2.4.6 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Ahalezkua Lehena

Adizki normalak						Hittanorako adizki alokutibuak						
NORK + denbora + sustraixa	AHAL markia KE > KI	NORI	NORK pluralg.	NOR pluralg.	Denbora atziz.	NORK + denbora + sustraixa	AHAL markia KE > KI	NORI	NORK pluralg.	Sexu markia	NOR pluralg.	Denbora atziz.
nei	ki	da/t		ze	n	n(aj)ei	ki	da/t		a/na	ze	n
hei	ki	a/na		ze	n	-	-	-		-	-	-
(z)ei	ki	o		ze	n	(j)ei	ki	o		a/na	ze	n
gei(n)	ki	gu		ze	n	g(aj)ei(n)	ki	gu		a/na	ze	n
zei(n)	ki	zu		ze	n	-	-	-		-	-	-
zei(n)	ki	zue	e	ze	n	-	-	-		-	-	-
(z)ei	ki	oe	e	ze	n	(j)ei	ki	oe	e	a/na	ze	n

1 - kidan > **kiran**, kida + e + nan = *kiraenan > **kiranen** eta kit + en > **kitten**

2 - NORK = GU alokutibuan (aj) ezaugarririk ez darabigu, eta ez dogu, kasu honetan, paradigmatan jarriko. Ikus: (1.1.21)en laugarren paragrafua.

3 - KE ahal-markia desagertu egiten da NORI-ren aurrian doianian, KI datibo-aurrekuonekin bat eginez.

2.4.6.1 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Ahalezkua Lehena (NOR/ZER = ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		heikiran	heikiran heikiranan*	zeikiran jeikiran jeikiranan		zeikiran	zeinkitten	zeikitten jeikitten jeikiranen
2 HIRI - m	neikian			zeikian	geikian			zeikien
3 HIRI - n	neikiñan			zeikiñan	geikiñan			zeikiñen
4 HARI	neikixon n(aj)eikixuan n(aj)eikixonan	heikixon heikixuan*	heikixon heikixonan*	zeikixon jeikixuan jeikixonan	geikixon geikixuan geikixonan	zeinkixon	zeinkixuen	zeikixuen jeikixuen jeikixonen
5 GURI		heikigun heikiguan*	heikigun heikiguanan*	zeikigun jeikiguan jeikiguanan		zeinkigun	zeinkiguen	zeikiguen jeikiguen jeikigunen
6 ZURI	neikizun			zeikizun	geinkizun			zeikizuen
7 ZUERI	neikizuen			zeikizuen	geinkizuen			zeikizuen
8 HÁRERI	neikixuen n(aj)eikixuen n(aj)eikixonen	heikixuen	heikixuen heikixonen*	zeikixuen jeikixuen jeikixonen	geinkixuen geinkixuen geinkixonen	zeinkixuen	zeinkixuen	zeikixuen jeikixuen jeikixuenen

1 - Hau aditz-moduau oraiñaldixan gitxi erabiltzen baldin bada, lehenaldixan gitxiago. Indikatiboko formetara jotzen da sarri: **“ahal netsan”** **“neikixon”**en ordez.

2 - Ikus: Sarrerako (1.1.2), (1.1.6) eta (1.1.9) Ahalezkuaz idatzitakuak.

3 - Ikus: (1.1.1)en, “b” eta “c” zutabetan markauta daren adizkixen gaiñan esandakua.

2.4.6.2 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Ahalezkoa Lehena (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK - m	HIK - n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		heikirazen	heikirazen heikiranazen*	zeikirazen jeikirazen jeikiranazen		zeinkirazen	zeinkittezen	zeikittezen jeikittezen jeikiranezen
2 HIRI - m	neikiazan			zeikiazan	geinkiazan			zeikiezen
3 HIRI - n	neikiñazan			zeikiñazan	geinkiñazan			zeikiñezen
4 HARI	neikixozen n(a)elikixuazen n(a)elikixonazen	heikixozen heikixuazen*	heikixozen heikixonazen*	zeikixozen jeikixuazen jeikixonazen	geinkixozen geinkixuazen geinkixonazen	zeinkixozen	zeinkixuezen	zeikixuezen jeikixuezen jeikixonezen
5 GURI		heikiguzen heikiguazen*	heikiguzen heikigunazen*	zeikiguzen jeikiguazen jeikigunazen		zeinkiguzen	zeinkiguezen	zeikiguezen jeikiguezen jeikigunezen
6 ZURI	neikizuzen			zeikizuzen	geinkizuzen			zeikizuezen
7 ZUERI	neikizuezen			zeikizuezen	geinkizuezen			zeikizuezen
8 HÁRERI	neikixuezen n(a)elikixuezen n(a)elikixonezen	heikixuezen	heikixuezen heikixonezen*	zeikixuezen jeikixuezen jeikixonezen	geinkixuezen geinkixuezen geinkixonezen	zeinkixuezen	zeinkixuezen	zeikixuezen jeikixuezen jeikixuenezen

2.4.7 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Subjuntibua Oraña

NOR + denbora + sustraixa	NORI	NORK	NOR Pluralgillia	Subjuntibo atzizkixa
dei	da	da		n
	a/ana ₍₂₎	a/na		n
	o	-		n
	gu	gu		n
	zu	zu		n
dei	zue	zue		n
	oe	e	ze	n

1 - d (bokal artian) > r.

2 - HI-Emakumiari dagokixon NORI markia *-ana-* darabigu, *-na-* erabili biharrian.

Ikus: (1.1.12)an honetaz idatzitakua.

2.4.7.1 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Subjuntibua Oraiña (NOR/ZER = ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK-m	HIK-n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		deiran	deiranan	deiran		deirazun	deirazuen	deiren
2 HIRI - m	deixaran			deixan	deixagun			deixen
3 HIRI - n	deixanaran			deixanan	deixanagun			deixanen
4 HARI	deixoran	deixuan	deixonan	deixon	deixogun	deixozun	deixozuen	deixuen
5 GURI		deiguan	deigunan	deigun		deiguzun	deiguzuen	deiguen
6 ZURI	deizuran			deizun	deizugun			deizuen
7 ZUERI	deizueran			deizuen	deizuegun			deizuen
8 HÁRERI	deixueran	deixuen	deixuenan	deixuen	deixuegun	deixuezun	deixuezuen	deixuen

2.4.7.2 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Subjuntibua Oraiña (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK-m	HIK-n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		deirazen	deiranazen	deirazen		deirazuzen	deirazuezen	deirezen
2 HIRI - m	deixarazen			deixazen	deixaguzen			deixezen
3 HIRI - n	deixanarazen			deixanazen	deixanaguzen			deixanezen
4 HARI	deixorazen	deixuazen	deixonazen	deixozen	deixoguzen	deixozuzen	deixozuezen	deixuezen
5 GURI		deiguazen	deigunazen	deiguzen		deiguzuzen	deiguzuezen	deiguezen
6 ZURI	deizurazen			deizuzen	deizuguzen			deizuezen
7 ZUERI	deizuerazen			deizuezen	deizueguzen			deizuezen
8 HÁRERI	deixuerazen	deixuezen	deixuenazen	deixuezen	deixueguzen	deixuezuzen	deixuezuezen	deixuezen

2.4.8 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Subjuntibua Lehena

NORK + denbora + sustraixa	NORI	NORK pluralgillia	NOR Pluralgillia	Subjuntibo markia
nei	da		ze	n
hei	a/ana ₍₂₎		ze	n
(z)ei	o		ze	n
ge(ng)i	gu		ze	n
ze(ng)i	zu		ze	n
ze(ng)i	zue	e	ze	n
(z)ei	oe	e	ze	n

1 - d (bokal artian) > **r** ; io > **ixo** ; ioe > ixoe > **ixue**.

2 - HI-Emakumiari dagokixon NORI markia *-ana-* darabigu, *-na-* erabili biharrian.

Ikus: (1.1.12)n honetaz idatzittakua.

3 - Parentesi arteko (ng) galduta daukagu eta *gengi* > **gei** eta *zengi* > **zei** egitten dittugu.

2.4.8.1 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Subjuntibua Lehena (NOR/ZER = ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK-m	HIK-n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		heiran	heiran heiranan*	(z)eiran		zeiran zeirazun*	zeiren zeirazuen*	(z)eiren
2 HIRI - m	neixan			(z)eixan	geixan			(z)eixen
3 HIRI - n	neixanan			(z)eixanan	geixanan			(z)eixanen
4 HARI	neixon	heixon heixuan*	heixon heixonan*	(z)eixon	geixon	zeixon zeixozun*	zeixuen zeixozuen*	(z)eixuen
5 GURI		heigun heiguan*	heigun heigunan*	(z)eigun		zeigun zeiguzun*	zeiguen zeiguzuen*	(z)eiguen
6 ZURI	neizun			(z)eizun	geizun			(z)eizuen
7 ZUERI	neizuen			(z)eizuen	geizuen			(z)eizuen
8 HÁRERI	neixuen	heixuen	heixuen heixuenan*	(z)eixuen	geixuen	zeixuen zeixuezun*	zeixuen zeixuezuen*	(z)eixuen

1 - Ikus: (1.1.1)en, “b” eta “c” zutabetan markauta daren adizkixen gaiñian esandakua.

2 - Hirugarren lerroko adizkixen gaiñian, ikus: (1.1.12).

3 - (f) eta (g) zutabetan markauta daren adizkixen gaiñian, ikus: (1.1.15).

2.4.8.2 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Subjuntibua Lehena (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK-m	HIK-n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		heirazen	heirazen heiranazen*	(z)eirazen		zeirazen zeirazuzen*	zeirezen zeirazuezen*	(z)eirezen
2 HIRI - m	neixazen			(z)eixazen	geixazen			(z)eixezen
3 HIRI - n	neixanazen			(z)eixanazen	geixanazen			(z)eixanezen
4 HARI	neixozen	heixozen heixuazen*	heixozen heixonazen*	(z)eixozen	geixozen	zeixozen zeixozuzen*	zeixuezen zeixozuezen*	(z)eixuezen
5 GURI		heiguzen heiguazen*	heiguzen heigunazen*	(z)eiguzen		zeiguzen zeiguzuzen*	zeiguezen zeiguzuezen*	(z)eiguezen
6 ZURI	neizuzen			(z)eizuzen	geizuzen			(z)eizuezen
7 ZUERI	neizuezen			(z)eizuezen	geizuezen			(z)eizuezen
8 HÁRERI	neixuezen	heixuezen	heixuezen heixuenazen*	(z)eixuezen	geixuezen	zeixuezen zeixueuzen*	zeixuezen zeixueuzuezen*	(z)eixuezen

2.4.9 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Agintera

NOR + sustraixa	NORI	NORK	Pluralgillia
-	da	-	
-	-	k/n	
e(g)i	o	-	
-	gu	-	
-	-	zu	
-	-	zue	
e(g)i	oe	-	z

1 - d (bokal artian) > **r** ; io > **ixo** ; ioe > **ixue** ;

ioen > **ixone**

2 - Parentesi arteko eta sustraixarena dan (g)a, ez dogu ahoskatzen eta idatzi be ez dogu idatziko, Ahalezkuan eta Subjuntibuan egin dogun moduan.

2.4.9.1 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Agintera (NOR/ZER = ha)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK-m	HIK-n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		eirak <i>esairak</i> <i>botairak</i>	eiran <i>esairan</i> <i>botairan</i>	deirala		eirazu <i>esairazu</i> <i>botairazu</i>	eirazue <i>esairazue</i> <i>botairazue</i>	deirela
2 HIRI - m				deixala				deixela
3 HIRI - n				deixanala				deixanela
4 HARI		eixok <i>esaixok</i> <i>botaixok</i>	eixon <i>esaixon</i> <i>botaixon</i>	deixola		eixozu <i>esaixozu</i> <i>botaixozu</i>	eixozue <i>esaixozue</i> <i>botaixozue</i>	deixuela
5 GURI		eiguk <i>esaiguk</i> <i>botaignuk</i>	eigun <i>esaigun</i> <i>botaignun</i>	deigula		eiguzu <i>esaiguzu</i> <i>botaignuzu</i>	eiguzue <i>esaiguzue</i> <i>botaignuzue</i>	deiguela
6 ZURI				deizula				deizuela
7 ZUERI				deizuela				deizuela
8 HÁRERI		eixuek <i>esaixuek</i> <i>botaixuek</i>	eixone <i>esaixone</i> <i>botaixone</i>	deixuela		eixuezu <i>esaixuezu</i> <i>botaixuezu</i>	eixuezue <i>esaixuezue</i> <i>botaixuezue</i>	deixuela

1 - Aginterazko adizkixak “NORK bigarren pertsonia”renak dira: **b**, **c**, **f** eta **g** zutabietakuak; **d** eta **h** zutabietako adizkixak Subjuntibokuak dira izan, nahiz eta **agintzeko** be erabiltzen diran.

2 - Agintera hutsezko adizkixak, **b**, **c**, **f** eta **g** zutabietakuak, dira erabillixenak: baltzez markauta darenak.

3 - Agintera hutsezko adizkixak, **b**, **c**, **f** eta **g** zutabietakuak, (*HIK-m*, *HIK-n*, *ZUK* eta *ZUEK*),

baiezko perpausetan, laguntzaillia beste aditz bati lotzerakuan eratzen dan adizki konposatuaren bi elementuak (aditz nagusixa eta laguntzaillia) lotuta idatzi eta ahoskatuko dira, aditz nagusixa bokalez edo **n**-z amaitzen bada; eta halan, nahiz eta laguntzaillia tartian izan, trinko edo sintetiko itxura guztia daukan adizkixa sortzen jaku. Hona hemen *Aditz nagusixa* eta *Laguntzaillia* lotzeko erregelia:

– Laguntzaillia beti **E** barik,

– Aditz nagusixa:

- **I**, **N** edo **U**-z amaitzen bada bere azken **I**, **N** edo **U** barik: *erosi* > *eros-*, *esan* > *esa-*, *kontau* > *konta*, *siñistu* > *siñist-*, *konpondu* > *konpond-*, **edo**
- **A**, **E** edo **O**-z amaitzen bada, ezer galdu barik: *bot-*, *erre-*, *jaso-*

(Ikusi paradigma honetan *esan* eta *bot* aditzen adizkixak, letra etzanez jarrittakuak, erregela honen arabera tajutu dittugunak)

ezezko perpausetan bananduta idatziko dira aditz nagusixa eta laguntzaillia: *ez eixok esan*, *ez eixok bota*.

4 - Ikus: (1.1.12)an, emakumiari dagokixon (*-ana*) **HIRI** ezaugarrixaz esandakua. Hortik: 3. lerroko *deixanala* eta *deixanela*.

2.4.9.2 - Laguntzaillia, EGIÑ: NOR-NORI-NORK Agintera (NOR/ZER = hárek)

	a	b	c	d	e	f	g	h
	NIK	HIK-m	HIK-n	HAREK	GUK	ZUK	ZUEK	HÁREK
1 NERI		eiraz esairaz botairaz	eiranaz esairanaz botairanaz	deirazela		eirazuz esairazuz botairazuz	eirazuez esairazuez botairazuez	deirezela
2 HIRI - m				deixazela				deixezela
3 HIRI - n				deixanazela				deixanezela
4 HARI		eixuaz esaixuaz botaixuaz	eixonaz esaixonaz botaixonaz	deixozela		eixozuz esaixozuz botaixozuz	eixozuez esaixozuez botaixozuez	deixuezela
5 GURI		eiguaz esaiguaz botaignuaz	eigunaz esaigunaz botaignunaz	deiguzela		eiguzuz esaiguzuz botaignuzuz	eiguzuez esaiguzuez botaignuzuez	deiguezela
6 ZURI				deizuzela				deizuezela
7 ZUERI				deizuezela				deizuezela
8 HÁRERI		eixuez esaixuez botaixuez	eixonez esaixonez botaixonez	deixuezela		eixuezuz esaixuezuz botaixuezuz	eixuezuez esaixuezuez botaixuezuez	deixuezela

1 - Aurreko orrialdian, ZER BAKARRAren paradigman jarritako oharrak balio dabe honako be.

3. ADITZ TRINKUA

3.1. NOR

3.1.1 - Aditz trinkua, NOR: EGON

3.1.1.a - Indikatibua Oraina

Adizki normalak			Hittanorako adizki alokutibuak			
NOR + denb.	Sustraixa	Pluralgillia	NOR + denb.	Sustraixa	Sexu markia	Pluralgillia
na	go		n(aj)a	go	k/n	
ha	go					
da	go		da/ja	go	k/n	
ga	(go)	z/de	g(aj)a	go	a/na	z
za	(go)	z/de				
za	(go)	zee/dee				
da	(go)	z/de	da/ja	go	a/na	z

- **d** (bokal artian) > **r** ;
g bokal artekoa galdu egitten da berba egitterakuan; **oa** > **ua**.
- Adizkixa “**de**” pluralgilliakin badoia “**go**” sustraixa galdu egitten dau.
- Aditz honetan eta orainaldixan, ez dogu Eibarren alokutibuen “**aj**” ezaugarria erabiltzen.

3.1.1.b - Indikatibua Lehena

Adizki normalak				Hittanorako adizki alokutibuak				
NOR + denb.	Sustraixa	Pluralgillia	Denbora atzizkia	NOR + denb.	Sustraixa	Sexu markia	Pluralgillia	Denbora atzizkia
ne(n)	go		an	n(aj)e(n)	go	a/na		n
he(n)	go		an					
(z)e	go		an	je	go	a/na		n
gen	(go)	ze/de	n	g(aj)e(n)	go	a/na	ze	n
zen	(go)	ze/de	n					
zen	(go)	zee/dee	n					
(z)e	(go)	ze/de	n	je	go	a/na	ze	n

- **d** (bokal artian) > **r** ;
g bokal artekoa galdu egitten da berba egitterakuan; **oa** > **ua**.
- Adizkixa “**de**” pluralgilliakin badoia “**go**” sustraixa galdu egitten dau.
- “**GU**”ri dagokion alokutibuan ez dogu (aj) ezaugarria erabiltzen.

3.1.1 - NOR: EGON

3.1.1.c - Baldintza

Adizki normalak				Hittanorako adizki alokutibuak				
Baldintza markia	NOR + denbora	Sustraixa	Pluralg.	Baldintza markia	NOR + denbora	Sustraixa	Sexu markia	Pluralg.
ba	nen	go		ba	n(aj)en	go	k/n	
ba	hen	go		-	-	-	-	
ba	le	go		ba	l(aj)e	go	k/n	
ba	gen	(go)	z/de	ba	g(aj)en	go	a/na	z
ba	zen	(go)	z/de	-	-	-	-	-
ba	zen	(go)	ze/de	-	-	-	-	-
ba	le	(go)	z/de	ba	l(aj)e	go	a/na	z

3.1.1.d - Ondorixua

Adizki normalak				Hittanorako adizki alokutibuak				
NOR + denb.	Sustraixa	Ondorixo markia	Pluralg.	NOR + denb.	Sustraixa	Ondorixo markia	Sexu markia	Pluralg.
nen	go	ke		n(aj)en	go	ke	k/n	
hen	go	ke		-	-	-	-	
le	go	ke		l(aj)e	go	ke	k/n	
gen	(go)/de	ke	z	g(aj)en	(go)/de	ke	a/na	z
zen	(go)/de	ke	z	-	-	-	-	-
zen	(go)/de	ke	z	-	-	-	-	-
le	go	ke	z	l(aj)e	go	ke	a/na	z

1 - Sustraixan letra etzanez jarri dogun “de”, pluralgillia da izan eta hor jarri bada, “KE”-ren aurretik ipintzeko izan da. Adizkixa “de” pluralgilliakin badoia, “go” sustraixa galdu egitten dau.

2 - Alokutibuaren (aj) ezaugarria ez dogu aditz-modu honetan erabiltzen.

3.1.1 - NOR: EGON

3.1.1.e - Agintera

NOR + denbora	Sustraixa	Pluralgillia
-		
ha		
-		
-	go	
za		z
za		ze(e)
-		-

3.1.1. - Aditz trinkua, NOR: EGON

	a	b	c	d	e
	INDIK. ORAIÑA	INDIKATIBUA LEHENA	BALDINTZA	ONDORIXUA	AGINTERA
1 NI	nago naok naon	ne(n)guan najeuan / n(a)enguan najeonan / n(a)engonan najeuanan*	banengo banengok banengon	nengoke nengokek nengoken	<i>nagoen</i>
2 HI - m	hago	he(n)guan	bahengo	hengoke	hago
3 HI - n	hago	he(n)guan he(n)guan*	bahengo	hengoke	hago
4 HA	dago daok daon	(z)eguan jeuan jeonan jeuanan*	balego balegok balegon	legoke legokek legoken	<i>dagoela</i>
